

Herririk Herri |4|

Gobernu Taldearen aldeko botoekin onartu ditue aurrekontuak Atxondon

Ekonomia |10|

Durangoko Ona enpresan 23 langile kaleratzea planteatzen dauen EREa



Berbaz |9|

Manuel Fontiveros: "Berrizko eskultura inguruko lantegietan egin gura dot"

A-8ko hirugarren erraileko obrak martxan Gerediagan

> Iurreta eta Gerediaga (Abadiño) arteko tartean egiten dabiltz zabaltzeko lanak

> Ondoren, autobidearen ordainlekua eta aparkalekua egingo ditue

3

Agirrebeitia motor enduroko Munduko Kopan ariko da

KIROLA• Jon Agirrebeitia berriztarak motor enduroko Munduko Kopako bigarren proban parte hartuko dau otsailaren 6an, Italian. Estatu osotik katalan bi eta bera doaz. Prestaketa laburra, baina intentsoa egin dau eta itxaropentsu dago: "Gauzak okertu ezik, arratsaldeko saiora sailkatu neintekela uste dot", dino.

25

Bakarrik bizi diren edadetuen artean suteak prebenitu gura ditue

Durango• Udal arduradunek azaldu dabenez 80 urtetik gorako 310 durangar bakarrik bizi dira. Etxebizitzetan gertatzen diren sute gehienak adin horretako pertsonen artean gertatzen direla kontuan hartuta, suteak prebenitzeko kanpaina jarri dabe martxan. Zerbitzua A Tiempo enpresaren esku itzi dau udalak. Lehenengo bakarrik bizi diren pertsona horreek bisitatuko ditue. Informazioa emoteaz gainera, berogailu eta bestelako azpiegituren azterketa egingo dabe. Bigarren fase batean ke-detektagailuak jarriko dituela azaldu dau Udalak.

2



K.Aginako

•Durangaldea

AHTaren aurkako manifestaziorako deia

4

•Mallabia

Zuhaitz Eguna asteon jarri dau martxan Udalak

4

•Berriz

Martxoaren 8ko kartel lehiaketan izena emoteko epea zabalik

4

•Iurreta

Taxi auzuneak 1.600 erabiltzaile izan ditu maiatzetik hona

6



Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944
IBAI URIEN

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, bamizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

DURANGO



Azaroan Intxaurren gertatu zenaren antzeko suteak ekiditea dau helburu Gizarte Ekintzatik sustatutako ekimenak.

80 urtetik gorako durangarrei suteak prebenitzeko alarmak ipinteko ekimena

Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako 310 adinekori zuzenduta dago Gizarte-ekintza Saileko ekimena

Durangon bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako 310 lagun dagoz, eta EAEn etxebizitzetako suteen %80 soslai horretako kasuetan gertatzen dira SOS Deiak-en arabera. Horregaitik, Durangoko Gizarte-ekintza Zerbitzuak suteen prebentziorako ekimena martxan ipini dau.

Udalak 30.000 euroko diru-atala bideratu dau zeregin horretara, eta Udala egingo da zerbitzua-

Ekimenak hiru fase daukaz; etxebizitzetako azpiegiturak aztertu eta alarmak ipiniko ditue, besteak beste

ren kostuaren kargu. Zerbitzua A Tiempo enpresak eskainiko dau, eta hiru fasean garatuko dabe. Lehenengoan (dagoeneko hasi dira) bakarrik bizi diren 310 pertsonak bisitatuko ditue. Segurtasunari buruzko oinarritzko ezagutza azalduko deutsee eta prebentzinoari eta segurtasunari buruzko eskuliburuak emongo deutseez. Lehenengo bisita horretan gas, berogailu eta bestelako azpiegitu-

ren azterketa be egingo dabe. Amaitzeko, bisitari buruzko informea bat prestatuko dabe.

Bigarren fasean ke-detektagailuak instalatuko ditue etxebizitzetara horretan. Kea kantitate bategatik gorakoa bada, alarma biziak joko dau (90 dezibeliorainokoa), aldamenekoak be entzun daien ezer larria gertatzen bada. Gainera, argia ateratzen dauen seinale bat egiten dau, gorrentzat: "Horre-

Durangaldean ekimen hau martxan ipini dauen lehenengo herria da Durango, baina beste batzuk be interesatuta ei dagoz

"Itxaroten genduen baino harrera hobea izan dogu"



Jon Ensunza A Tiempo enpresako bozeramaileak dinonez, martxan ipini daben herrietan "pentsatu baino harrera hobea" izan dau suteak prebenitzeko ekimenak.

EAeko herri askotan, dagoeneko, martxan dago ekimena. Bizkaiko Udaletxeetan hasi ginen proiektua aurkezten, eta orain Gipuzkoa eta Arabara zabaltzen gabilz. Bizkaiko batzuk aitzearren, Santurtzi, Leioa, Erandio, Ortuella, Lekeitio, Zierbena... Orokorrean, udal guztiak daukie proiektua martxan ipintzeko asmoa.

Herri horretan zer harrera izan dau orain arte?

Guk pentsatu baino harrera hobea eduki dau. Lanean gabilzen udal gehienek proiektua amaitzerakoan beste talde batzuei zabaltzen deutsee; elbarrituei, adibidez. Hori guretzat oso adierazgarria da. Orain dela urte pare bat sortutako proiektu barri bat den heinean, etxebizitzetako suteen portzentajetan gure proiektuak eraginik izan dauen esateko oraindino goiz da, baina etxebizitzetan detektatzen doguzen defizientzien %91 zuzentzen dira.

Durangaldeko beste herri batzuek be interesa erakutsi dabe?

Durango aurreratu da, baina eskualdeko beste udalek be proiektua aurrera ateratzeko asmoa era-

kutsi dabe. Udal bakotxa mundu bat da, baina dagoeneko proiektua Durangaldeko alkate denek ezagutzen dabe, eta asko kotratazioa bideratzen dabilz.

Lehenengo fasean etxebizitzetako azpiegiturak aztertzen dozuez. Oro har, zer egoeretan dagoz?

Proiektuaren lehenengo fasean, etxebizitzetara batean egon daitekezen arrisku potentzial guztiak errebitsatzen doguz, instalazio elektrikoak hasi eta logela bateko telebistatario. Orokorrean, etengailu diferentzialagaz egoten da arazoa, askok ez dabelako konprobatzen eta segurtasun aldetik oso garrantzitsua delako. ■ J.D.

DATUAK

Durango:

- Biztanleak..... **27.925**
- 80< eta bakarrik bizi ez direnak..... **1.300**
- 80< eta bakarrik bizi direnak..... **310**

Bizkaian ekimena martxan: **31 herritan**

Gipuzkoan ekimena martxan: **11 herritan**

Arabian ekimena hasteko prest: **3 herritan**

la, ohetik jaiki eta kalera irtetzeko astia emoten dau", zehaztu dau A Tiempo enpresako kide Jon Ensunzak. Detektagailua geratu daiten nahikoa da leihoak zabaltzea; kea maila jakin batetik behera bajatzean, berez geratuko da alarma. Hirugarren fasean bizilekuaren krokis bat egingo dabe, daukaten sarrerak eta irteerak zehaztuz. Horrela, beharrezkoa balitz, su-hiltzaileek datu horreek prest izango leukiez.

Ke-detektagailuaren bateria urtean behin aldatu behar da. Alemanian eta Frantzian, esaterako, etxebizitza guztiak daukie horrelako detektagailua, "legeak derrigortzen daudelako", Ensunzaren esanetan. Durangaldean zerbitzu hori eskaintzen daben lehenengo aldia da, baina "eskualdeko beste herri batzuk be interesa erakutsi" dabela azaldu dau Natxo Martínez Durangoko Gizarte-ekintza Saileko buruak. Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritan, dagoeneko, badago zerbitzu hori. ■ J.D.



Informazino panelak gaurkotu eta osotuko ditue

Bizkaiko Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik turismoa gartzeko jaso daben 27.580 euroko laguntzagaz, besteak beste, hainbat informazino gune gaurkotuko ditu eta turismo bulegora iristeko errotulazinoa egokituko dau Durangoko Udalak.

Arte eta Historia Museoaren aurrean dagoen informazino-panelaren karatulk aldatu egingo ditue. Panelari irudia aldatuko deusie bisitariak turismo bulegora errazago zuzendu daitezzen. Edukiak be gaurkotu egingo ditue, batez be, turismo bulegoari jago-kozenak. Panel barriari argizatze-sistema ipiniko deusie.

Landako Gunearen ondoan dagoen informazino-gune estatikoa be barriztatu eta hobetu egingo dabe. Panelaren alde baten informazino turistiko gaurkotua ipiniko dabe: plano turistiko barriagaz eta Uriaren baliabide aipagarriekin. Beste aldean Landako erakustazokan izango diren jardueri buruzko informazinoa ipiniko dabe.

Arte eta Historia Museoaren aurrean dagoen informazino-paneleko edukiak gaurkotu egingo ditue

Informazino-guneetako planoak eta iragarkiak be barriztatu egingo ditue. PVC fina erabiliko da, euriak-eta ez deiezen kaltetu.

Azkenik, Lariz Torrean dagoen turismo bulegoaren barruko alde seinalaztatu egingo dabe. Sarre-rako zuzendaritzan Lariz Torreko instalazinoetako zerbitzuen eta ordutegien berri emongo da. Seinalaetan braille idazkera-sistema be jasoko da. Bestalde, turismo bulegoaren zerbitzu-karta be egingo da eskuragarri bulegoaren sarreran. ■ J.D.

Landako Gunearen ondoan dagoen informazino-gune estatikoa barriztatu eta hobetuko dabe

ABADIÑO

Hasiak dira A8aren hirugarren erraila egokitzeko lanetan

Autobidea zabaltzeko lanekin bat egingo dabe Lebario eta Gerediagan beste hainbat trafiko lanek



Urte barriagaz ekin deutsee Bizkaiko Aldundiaren barneko Interbiak erakundeak zuzenduriko lanei.

Hasierako egitasmoaren arabera, 2009ko azaroan hasitakoak ziren A8aren hirugarren erreia eraikitzen, baina urte hasiera honetan ekin deutsee Bizkaiko Aldundiak lanei. Etorkizunean A8aren eta Kanpazarreko korridorearen lotunea izango denaren Gerediaga eta Lebario auzoetakoak dira abiatu barri ditueen lanak; hirugarren erreia lan honez gainera baina, bestelako lanak be izango ditue datuzen hilabeteetan auzo biotan.

Iurreta eta Gerediaga arteko autobide tartean egiten dabilz zabaltzeko lanak

Autobidearen ordainlekua eta disuasino-aparkaleku bat be eraikiko ditue Gerediagan

Bilbo-Behobia autobide guztian zehar autobidearen trafikoa hartzeko ahalmena gehitzeko helburuagaz egin daben legez, autobidearen noranzko bakoitzean hirugarren erreia bana zabaltzeko lanak hasi ditue Iurreta eta Gerediaga tartean be.

Iurretako ordainlekuaren parean hasi eta Gerediagan eraikiko daben ordainlekuraino egokituko ditue hiruna erreiak. Tarte horretatik Donostiako norantzan, orain arteko moduan, bi erreia izango dira, Interbiak sozietateak adierazi dauenez.

Urte hasiera honetan abiatu ditueen lanen artean lehenengo burutuko ditueenak hirugarren erreia eta Gerediaga auzoko ordainlekuarenak izango dira. Hirugarren erreia egokitzeko lanen ondoren, kokapena Gerediaga auzoan izango dauen ordainlekua eta honen aldamean egingo daben disuasio-aparkaleku atontzen hasiko dira.

Matiena N-634 errepideagaz lotuko dauen biribilgunea da Aldundiaren proiektuan jasotzen diren bietako bat

Ondoren, A8 autobidea eta etorkizuneko Kanpazarreko korridorearen lotunea osatuko daben biribilgunea eraikiko dabe, batetik, Garaiko sarreran; eta Matiena auzoa eta N-634 errepidea lotuko dituen biribilgune barria eraikitzen hasi dira asteon San Blas hotelaren parean. ■ I.E.

Oinezkoendako pasabide barriak, mugikortasuna hobetzeko

Bizkaiko Aldundiaren Interbiak erakundearen proiektuan jasotzen denaren arabera, "autobidearen hirugarren erreia eraikitzeko lanekin lotura zuzena ez daukien arren, A8aren eta N-634 errepideen inguruko udalerrien mugikortasuna hobetzeko" helburua izango daben beste lan batzuk be burutuko ditue Gerediaga eta Lebario

auzoen inguruan. Egiteko horreek, oinezkoentzako azpiegituren hobetzeagaz dagoz lotuta: Matiena eta Gerediaga arteko oinezkoen bidea barriztea, batetik, eta N-634 errepidearen gainetik igarotzeko ibilbide barria egitea, bestetik. Aitatu-tako errepidearen aldamenetan espaloiak egokitzea be jasotzen dau lanon egitasmoak.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA
KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Podología

Podinara Urreta Jainaga

• Oinetako patologiak
• Neurritza egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gatz

YMO AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

PODÓLOGA 189. Elargunidea

DURANGALDEA

AHTaren "txikizioa" salatu eta biharko manifestazinora deitu dabe

AHT Gelditu Elkarlanak zapatu honetan Hendaiatik Irunerako manifestazinora joateko deia egin dau



Durangaldeko hainbat alkate eta zinegotzi egon ziren Elkarlanak emondako prentsaurrekoan.

Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlanak AHTak eragingo dauen "txikizioa" salatu eta zapatuan, 16:00etan, *AHTrik Ez! Proiektu Txikitzaileak Gelditu* lelopean Hendaian egingo den manifestazinora joatera deitu dabe.

AHTa egiteko beharko den "dirutza" gizartearen "benetako arazoak" konpontzeko erabiltzeko eskea

Zornotza Bizirik-ek be bat egin dau deialdiagaz. Autobusak antolatu ditue eskualdeko herrietatik; txartelak ohiko tokietan salgai dagozela adierazo dabe; Durangon Intxaurre, Alpino eta Mesoi Berria tabernetan, esaterako.

Tabiran, prentsaurrekoa eskaini eben tokitik gertu, orain lanean dabilzen eremu batean, igaz arte eta ehunka urtez baserri bat egon zela salatu dau Urdaspal Alberdi Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlaneko kideak: "Lehen baserri bat, bizia, zegoen lekuan, orain makinak eta suntsiketa dago". AHTko lanak egiten dabilzen Durangaldeko beste tokiak (Iurreta, Abadiño, Euba eta Zornotza) be gogoratu zituen.

Manifestazinorako autobusak dagozela dinoe; tiketak ohiko tokietan dagoz salgai

AHTa egiteak eskatzen dauen "dirutza" gizartearen "benetako arazoak" konpontzeko erabili daie la eskatu eben: "Euskal Autonomia Erkidegoko herritar bakoitxeko 4.859 euro gastatuko ditue trenean. Harrigarria da horren aurrean Bizkaiko Foru Aldundiak, adibidez, bizkaitar bakoitxeko 593,84 euro baino ez dituela inbertituko 2010ean gizarte ekintzan".

Prentsaurrekoa babestu eben, besteak beste, Lorea Muñoz, Niko Moreno, Aitor Loiola eta David Cobosek; hurrenez hurren, Izurtza, Elorrio, Mallabia eta Atxondo-ko alkateek. ■ J.D.

ELORRIO

Diru-sarrera gitxiagoko aurrekontuak

Krisia dela eta, Elorrioko Udalak diru-sarrera gitxiagokaz ekin deustso urteari. Niko Moreno alkateak nabarmendu dauenez, azken urte biotan ia zortzi milioi eta erdiko aurrekontua eduki dau Udalak, baina aurten diru-sarrerak ez dira zazpi milioira heltzen. Gobernu Taldeak diru-sarrera horretara egokitu beharizan dau aurrekontuen proposamena, eta arlo guztietan jaitsierak egitea planteatu dau. Atzo iluntzeko osoko bilkuran egin eben aurrekontuen eztabaida.

Gobernu taldeak atzo iluntzeko osoko bilkuran aurkeztu eban bere proposamena

Gobernu Taldeak, neurrien artean, gastu arruntetako diru-partidak gitxitzea proposatu dau. Besteak beste, bajatu egingo dira jaietarako diru-partida, ikastetxeetarako eta kultur eta kirol taldeetarako diru-laguntzak.

Datorren urterako inbertsion nagusiak diruzaintzako geldiketarik hartutako diruagaz egitea aurrekusi dau Gobernu Taldeak. Inbertsionen artean, Berriotxo kaleko bigarren faseko lanak, Zenitatik Anduetxetarako urhoditeria, eta umeentzako parkeak proposatu ditue.

(Atzoko osoko bilkurako informazio guztia gure web gunean: www.anboto.org)

BERRIZ

Ekitaldiz jositako asteburu betea izan dabe Olakuetako jaietan



A. Dominguez

Berrizen San Antonioak ospatu zituen joan zen asteburuan. "Beheko jaiak" herriaren itxura aldatu eben. Domekan, goizetik hasita egitarau zabala zegoen. Argazkikoa Iremitze dantza taldekoen emaldia da. Zapatuan IV. San Anton Pilota Txapelketaren finala jokatu zen, eta 22-7ko emaitzagaz barritu eben txapela Berasaluze VII.ak eta Juan Pedro Lejarreta "Caperok".

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa abian da

Sexualitatea izango da gaia eta aurten DBHko gazteek be izango dabe parte hartzeko aukera

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Berrizko Udalak kartel lehiaketa antolatu dau aurten bigarren bez. Edonork parte hartu ahalko dau lehiaketan, eta aurten DBHko ikasleentzako kategoria berezia be antolatu dabe. Sexualitatea izango da aurtengo kartel lehiaketako gaia. Hortik aurrera, kartelak egiteko teknika, ideia eta formatua librea da. "Berriz 2010,

Lehiaketako irabazleak 300 euro irabaziko ditu; DBHko onenak, argazki kamera

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna" idatzita izan beharko dabe lanek.

Hasi da ideiak aurkezteko epea, eta otsailaren 16a izango da azken eguna. Kartelak Berrizko Liburutegian eta Udaletxeko erregistroan jasoko ditue, eta bi euskarritan aurkeztu beharko dira: euskarri digitalean eta euskarri gogorrean (A3an).

Kartel lehiaketak sari bi edukiko ditu. Lehiaketako irabazleak 300 euro irabaziko ditu, eta DBHko ikasleen kategorian, kartel onenaren egileak argazki kamera digitala irabaziko dau. ■ A.U.

MALLABIA

Landareak eskatzeko epea zabalik

Zuhaitz Eguna 2010eko lehenengo hiruhilekoan antolatuko dabe. Udalak landareak banatuko ditu herritarren artean, jardue- ra hori suspertzeko asmoagaz. Landareak jaso gura dituenak Udaleko bulegoetatik pasatu leiteke urtarrilaren 29a baino lehen.

Eskaera egin eta gero, Foru Aldundiak landareak bidaltzen ditu herrira. Haritza, pagoa, urkia, haritz amerikarra, astigarra, lizarra eta gereziandoa dira eskatu leitekezen zuhaitz landarak. Udalaradunek azaldu deuskuenez, ekimen horrek harrera ona izaten dau herrian: "Aurten beranduago irten da deialdia, eta jentea galdezka izan dogu". ■ P.M.

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187 Faxa: 946 205 194

anboto astekariak Eusko Labelarekin batera **saski bat** zozketatuko dau hilero



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

**Zenbat eta gehiago bialdu
orduan eta aukera gehiago**

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Bixente Kapanaga ,9 • 48215 Iurreta

IURRETA

Auzuneak eta herrigunea lotzeko helburuagaz maiztzean martxan ipini eben Taxi Auzunea ekimenak "aurreikuspen guztiak gainditu" dituela azaldu dau Iñaki Totorikaguena alkateak. Guztira, maiztzeatik urtea amaitu arteko zortzi hileetan 1.600 lagunek erabili dabe; hileko, barriz, 210 lagunek hartu dabe taxa, batez beste. Iraila eta urria dira erabiltzaile gehien izan ditueen hileak; 275 eta 262 erabiltzaile, hurrenez hurren.

Martxotik aurrera txartel bat erakutsi beharko da zerbitzuak erabiltzeko; Bidebarrietako udal bulegoetan egin leiteke

Aurten be taxi auzuneagaz jarraituko dabela dinoe, eta aldaketa bi iragarri ditue. Batetik, Taxi Auzuneko erabiltzaileek karneta egin beharko dabe. Izan be, "bestela gatxa da erabiltzaileak Iurretan erroldatuta dagozen ala ez jakitea". Txartela otsailaren 1etik aurrera atera ahalko da, Bidebarrietako udal bulegoetan. Txartela egitea doakoa da, eta egunean bertan gestionatzen dabe.

Hilabeteko epea ipini dabe txartela ateratzeko. Ondoren, martxoaren 1etik aurrera, erabiltzaileek gidariari txartela erakutsi beharko deutsie.

Bestetik, otsailaren 1etik aurrera, zerbitzuaren prezioa 0,50 euroan igoko dabe. Oraindino 1,5 eurokoa da zerbitzuaren prezioa, baina otsailetik aurrera 2 eurokoa izango da: "Udaletxearentzat be kostu eta esfortzu handia eskatzen dau Taxi Auzunea zerbitzuak. Beraz, zerbitzurik egokienaren eta Udaleko kontuen arteko oreka bilatu behar dogu. Halan be, oraindino bidaien kostuaren %80 ordaintzen dau Udalak".

Erabilera arduratsua

Oro har, zerbitzuak sortu zenean ipinitako helburuak bete ditue: ibilgailuen erabilera normalizatzea eta auzuneetan bizi diren iurretarrak herrigunera lotzea. Udaletxean gestino bat egiteko, erosketak egiteko, medikuarengana joateko... auzune denetakoe erabili dabe zerbitzua.

Halan be, Udaletik erabilera arduratsua egiteko eskatu dabe: "Erabiltzaileak benetan behar dauenean erabiltzeko da zerbitzua, eta halan erabiltzen segitu daien eskatzen dogu, ez kapritxo hutsagaitik", Totorikaguenaren esanetan. ■ J.D.

Otsailaren 1etik aurrera Taxi Auzunea zerbitzuaren prezioa igo egingo da: 1,5 eurotik euro bira, hain zuzen be

Taxi Auzuneak 1.600 bat erabiltzaile maiztzeatik hona

Pentsatu baino "arrakastatsuagoa" izan dela dino Totorikaguena alkateak



Joan zen urteko maiztzean ipini eben martxan Taxi Auzunea zerbitzua. Iban Gorriti

Santa Maña eta Mendataren arteko gizon-proba, bihar

700 kiloko harriari tiraka ibiliko dira talde bakotzeko 8na lagun, 20 minutuan, Bakixan

Bakixako jaien barruan gizon-proba interesgarria antolatu dabe zapatuan, 18:00etan, Bakixako ermita inguruan. Mendata eta Santa Mañako taldeak elkarren kontra lehiatuko dira: zortzi lagunek osatutako taldeek 700 kiloko harriari tiratuko deutsie 20 minutuan, nor baino nor gehiago. Beraz, ohiko asto-probak barik gizon-

probak egongo dira aurten. Igaz Mendatako taldea Astein aritu zen harriari tiraka; orduko haretan asto baten kontra jardun eben. Irail amaieran, Sanmigeletan, Iurretako gazteen astoaren eta motordun ibilgailuaren arteko lehia be egin eben, eta gizonek irabazi eben.

Ekimen horreek ikusmina sortu eben, eta, Bakixan be harrera ona izan leitekeelakoan, aurten asto-proben lekuan gizon-probak antolatzea erabaki dabe.

Bakixako Jai Batzordea eta Harria Herri kirol taldea dira ekimenaren antolatzaileak, Iurretako Udalaren laguntzagaz. ■ J.D.

Bakixako Jai Batzordeak eta Harria Herri kirol taldeak antolatu dabe gizon-proba, bihar, Bakixan

ZALDIBAR

Santamañezar tontorrean landaketa egiten laguntzera deitu ditue herritarrak

Urtarrilaren 31n, 08:30ean, Udaletxeko plazan ipini dabe hitzordua

Santamañezarreko tontorrean, bertako 1.200 arbola landatzeko antolatu daben irteeran parte hartzera gonbidatu zitueen herritarrak, atzo iluntzean Udaletxean egin eben agerraldian.

Aurreratu dabenez, bertako 1.200 arbola landatuko ditue urtarrilaren 31ko irteeran

Datorren urtarrilaren 31n, 08:30ean Udaletxeko plazatik abiatzeko hitzordua ipini dabe, lagundu eta parte hartu gura

daben guztientzat; haur, guraso zein gazteak gonbidatu ditue Santamañezarren egingo daben arbolan landaketara.

Santamañezarreko tontorra aurrerantzean eremu publikokoa izatea adostu eban Udalak 2008ko azaroko udalbatzarrean, eta 27.000 euro ordaindu eutsezen ordura arte jabe izandakoei.

Orain urtebetetik zaldibartar guztiena den eremua zaintzeko beharra nabarmendu dabe Udaleko agerraldian: "Herrirentzako estrategikoa den Santamañezar mendiaren eremua zain-

duta mantentzea" dela herritar eta naturzale askoren helburua nabarmendu dau alkateak.

Hain zuzen be, mendizale horreei luzatu deutsee gonbita urtarrilaren 31ko hitzordura agertu eta Santamañezarren bertako 1.200 arbola landatzeko beharrezko eskulanagaz laguntzeko.

Herritar eta mendizale askok ikusten dau ingurua mantentzeko premia, udal arduradunek dinoenez

GARI 16 lore zuzenean

urtarrilaren 30ean 22:00etan

PLATERUENA



OTXANDIO

Azkeneko udalbatzarrean Andikona plaza eraberritzeko proiektuari behin betiko onespina emon eutsien, aho batez, ezker abertzaleak eta EAJk. Proiektuak 399.000 euroko inbertsinoa eskatzen dau, eta Udalak finantziabidea behar dau gauzatu ahal izateko. Aldundiko bi saili eskatuko deutsee diru-laguntza: Agenda 21ari eta Hirigintza eta Udal-harremanak Sailari.

Aldundiko Agenda 21ari eta Hirigintza eta Udal-harremanak Sailari egingo deutsee diru-laguntza eskaera

A.Otxandiano: "Ahal dogun guztia egingo dogu, baina krisiak baldintzatuta gagoz"

Datorren urtean, 2011n, Gerra Zibilean Otxandio bonbardatu ebenetik 75. urteurrena izango da eta ordurako plaza prest izatea gura dabe, Nestor Basterretxeak motibo horren inguruan egindako hiru eskulturekin atonduta: "Gure esku dagoen guztia egingo dogu ordurako prest egon daiten, baina krisiak baldintzatuta gagoz", dino Aritz Otxandiano alkateak.

Proiektua aurrera badoa, plazaren diseinu barriak goiko eta beheko aldeak bardinduko ditu. Izan be, alde bien artean desnibela dago, eta hori parekatzeko eskailera batzuk egingo ditue goialdean, alde batetik bestera. Eskaileren artean tartekatuta, harrizko bloke landuak ipiniko ditue, este-

Aldundiko diru-laguntzen baitan dago Andikona plazako eraberritzea

Aldundiari eskatu deutsee laguntza; "diru hori barik ezingo da proiektua sasoiz gauzatu", dino alkateak



Plazaren ezker aldean ageri den eraikina botatzea aurreikusten da azken udalbatzarrean onartutako proiektuan.

tika orokorragaz harmonian egoteaz gainera, jesarleku funtzinoa be beteko dabenak. Plazaren erdi inguruan ipiniko leukiez Nestor Basterretxearen eskulturak be. Lanek orain plazaren zati bat har-

tzen dauen eraikin bat botatzea be aurreikusi dabe.

Herritarrek plazako proiektuaren maketa ikusi ahalko dabe laster. Bolatokian erakusketa gela bat egiten dabilz (kanpoaldeko

Plazako maketa bolatokiko erakusketa gelan erakutsiko dabe, ha amaitzen dabenean

urbanizazioa amaitzea falta da), eta erakusketa gela prest dagoenean plazaren hiru dimentsionako maketa ipiniko dabe ikusgai; herritarrekeuren iritzia emon ahal izango dabe, beraz. ■ J.D.

MAÑARIA

Kultur Etxeko hirugarren solairua egokitzeko lanak aurten egingo ditue

Hirugarren solairua atontzeko 38.000 euro bideratzea onartu eban Udalak joan zen barikuan

Kultur Etxearen goiko solairuaren lurzorua barrizatu eta lokalaren hormak egokitzeko lanak egingo ditue datozen hileetan. Horreez gainera, Kultur Etxeko argindar sarea martxan ipintzeko lanak be aurten egin gura ditue.

Lurzorua eta hormak barriztu eta argiteria sarea martxan ipini gura dau Gobernu taldeak urtea amaitu aurretik

Joan zen barikuan egin eben urteko lehenengo udalbatzarrean onartu eben Kultur Etxea atontzeko helburua daben lan horreetara 38.000 euro bideratzea.

Gobernu Taldeko ordezkariak aitatu dabenez, lanak ahalik eta lasterren abiatu, eta Kultur Etxearen hirugarren solairua aurten erabigarri egotea gura dabe.

Bestalde, eta Uribelarrea zinegotzi jeltzaleak nabarmendu daueenez, Udalak 2010erako daukan aurrekontuagaz, eta "nahiz eta Irisgarritasun Planean jasotzen denez Kultur Etxean igogailua egokitzeko beharra badagoen, obra askoz gehiago egiterik ez da izango". Oraingoz igogailua ipintzeko lanak finantzatzeko modurik ez ei dau ikusten Udalak.

Herrian ingelesa ikasten daben mañariarentzako diru-laguntzak emotea be onartu eben joan zen barikuko udalbatzarrean: umeen eta helduen taldeetan dabilzen ikasleei zuzendurikoak dira aitatutako laguntzak. ■ I.E.

Kultur Etxean igogailu bat be beharko litzatekeen arren, lan horreek finantzatzeko dirurik ez daukala dino Gobernuak

GARAI

Haitira eta Ekuadorrera bialduko dabe aurtengo Errematan batutako dirua

1.700 euro batu zitueen joan zen domekako enkante jentetsuan

Urteroko ohiturari eutsiz, Errematan elkartu ziren garaitarrak joan zen domekan, San Joan Ebanjelariaren elizan. Asteburua izanda, kanpotik be hurreratu zen jentea.

Mezagaz hasi eben eguna, eta produktu zein lurrak bedein-katuz segitu eben. Ondoran eto-

rri zen enkantea, 1.500 euro batuz. Horri, halan be, mezan batutako 200 euroak gehitu behar jakoz. Oilaskoak, babak, frutak, ogia, pastelak... 20 eurotik gora saldu zitueen denak.

San Anton egunez ospatzen den ekitaldi honetan ateratako

dirua ongintzara bideratu izan da, eta aurten be halan erabaki dabe: Haitira eta Palenquera (Ekuador) bidaliko dabe dirua. Lehen kasuan, lurrikarak eragindako kaltetuei laguntzeko; bigarrenean, garapen proiektuetarako, azken urteetan egin daben moduan. ■ M.O.

Bidajatu eroso, gozo-gozo

taxi zerbitzua

Taxi Geltokia • Durango

Iñigo Zabala 605 77 03 61

ATXONDO

Gobernuko zinegotzien botoekin onartu ditue 2010erako kontuak

Igazkoagaz alderatuta 400.000 euro gitxiago jaso ditu Udal aurrekontuak



Arrazolako etxebizitza sozialak garatzeko da aurtengo diru-atalik handiena. I.E.

Udalak 2010 honetan jasotzea espero dauen sarrerren beherakadak eraginda, igaz aurreikusitakoa baino 400.000 euro gitxiago kudeatzen dituen aurrekontua onartu eben eguaztenean. Guztira, 2.528.000 euro ingurukoa da Gobernu Taldearen aldeko botoagaz eta jeltzaleen kontrako botoagaz onartutakoa.

Urtean zehar dituen egitasmoak garatzeko, diru kopuru murriztagoa izatea espero dauenez Udalak, eta "gastua sarreretara egokitze", igaz baino inber-

tsino gitxiago aurreikusi dituela azaldu eban alkateak: milioi bat euroko inbertsinoak aurreikusi ditue. Arrazolan etxebizitza sozialak atontzen amaitu eta berauen esleipena urte honen barruan egitea batetik, Osakidetzako mediku kontsulta handitzea (190.000 euro) bestetik, eta herriko argiteria zaharkituan konponketak egitea (120.000 euro) lirakeke 2010ean gauzatzea espero daben hiru inbertsino nagusiak.

Bestalde, urte honetarako aurreikusitako Udalaren gastua sarrerren mailara jaisteko, elkar-teei emoten deusiezen diru-laguntzak murriztea aurreikusi dabe: herrikoen laguntzak %20 eta kanpokoan %30 txikiagoak izatea jasotzen dau aurrekontuak. ■ I.E.

Elkarteentzako diru-laguntzak %20 (bertakoei) eta %30 (kanpokoei) murriztuko ditue

IZURTZA

Abiadura moteltzeko eta energia aurrezteko neurriak

Oinezkoen segurtasuna bermatzeko eta argiteria publikoaren efizientzia handitzeko helburuagaz

Aho batez onartu eben ezker abertzaleko Gobernu taldekoek eta jeltzaleek joan zen barikuko udalbatzarrean, herriko auzobideetan ibiltzen diren oinezkoen segurtasuna bermatzera bideratutako lanak finantzatzeko beharrezko diru-laguntzak eskatzea.

Oinezkoak babestu eta autoen abiadura moteltzeko funtzinoa izango dauen seinalizazioa ipiniko dabe besteak beste.

Udalbatzar berean erabaki eben bestalde, herriko argiteria publikoaren efizientzia energetikoa sustatzeari ekitea.

2010 urterako INBERTSINO NAGUSIAK

Etxebizitza sozialak

410.000 €

Mediku kontsulta

190.000 €

Argiteria

120.000 €

Hirigintza Plan Orokor.

100.000 €

Autobus geltokia

25.000 €

Gaur egun herriko argiteria publikoa osatzen daben VSAP lanparen ordezkizinozkoak ipintzea jasotzen dauen proiektua onartu eben urtarrileko udalbatzarrean Udaleko alderdi biek. ■ I.E.

OHARRA

Egoitz Murgoitio txirindulariari laguntzeko urte amaieran antolatu eben zozketan parte hartu ebenei gogarazo gura izan deutse asteen, saria banatu barik dagoela oraindino, eta honakoak direla zenbaki saridunak:

8.294 // 3.152 // 104

DURANGO

Euskara elkartearen etorkizuneko erronkak aztergai Durangon

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Euskara Elkartearen Mugimenduaren gainean hausnarketa egiteko jardunaldiak antolatu ditu biharko Landako Elkartegian. 100 lagun inguru elkartzea itxaroten dabe. Euskara taldeen 25 urteko ibilbidea aztertu eta hurrengo urteetarako erronkak landuko ditue. Juan Luis Arexolaleiba, Isabel Isazelaia, Imanol Miner eta Rosa Ramosen hitzaldiek beteko dabe egitarauaren lehen zatia. Euskara elkartearen mugimenduaren helburuen eta lan-ildoan ekarpenak aurkeztuko ditue, besteak beste.

DURANGALDEA

Altzoan.com aurkeztu dabe

Eskualdeko herri mugimenduetako hainbat kidek webgune barri bat aurkeztu dabe asteen: altzoan.com. Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dabenez, euren helburua "Durangaldeak daukan aberastasun politiko, sozial eta parte hartzaileari" ekarpena egitea da. Webgunean, besteak beste, eskualdeko herrieta-ko informazioa, erreportajeak, herri mugimenduaren agenda eta Durangaldeari eta Euskal Herriari eragiten deuten gaiei buruzko eritziak topatu leitekez. Kritika eta salaketentzako txoko bat be badago. Aurkezpenean azaldu dabenez, "Durangaldean dagoen espiritu kritikoari eta sormen gaitasunari" lekua emon gura deutsee.

On-line bidezko ikastaroak AEKn

Euskaltegieta-ko ikasleen profila aldatuz doalako eta ikasleek gero eta denbora gitxiago eta ordutegi sakabanatukoak ditue-lako, AEK aurrez aurrekoak eta on-line saioak uztartzen ditueen ikastaroak lantzen dabil. Dagoeneko martxan ipini dabe 3. mailarako eskaintza. Azterketa gainditzera zuzendutako 120 orduko ikastaroa da, otsailaren 1ean hasi eta ekainaren 18an amaituko dena. Astero aurrez aurreko saio bat izango da, eta lana, berriz, on-line egingo dabe. Oraingoan, aurrez aurrekoak Donostiako Irrintzi AEKn eta Bilboko Indautxu-Irala AEKn dira. Urtarrilaren 28ra arte emon leiteke izena (312 euro). Eskaintza berritzaile horren inguruko informazio gehiago honako helbide elektronikoa eskatu leiteke: e-gela@aek.org

ABADIÑO

Aralar Osasun Zentroari buruz



Aralar alderdiak Eusko Legebiltzarrera eroan dau Abadiño-ko osasun zentroak eragin dauen eztabaida. Abadiño-ko auzo jakin batzuetako herritarrei —tartearen Muntzaratz auzoa dago, 400 biztanle dituen— Zelaietako Osasun Zentroa beharrean Matienakora joan behar dabela jakinarazi deutsee. Herritar gehienek baina, Zelaieta Matiena baino gertuago daukie eta aldaketaren kontra mila sinadura batu ditue. Ildo horretatik, otsaileko osoko bilkuran, "herritarrek pairatutako lekualdaketa" Osasun eta Kontsumo Sailak zelaz arrazoitzen dauen gal-detuko deutso Aralarrek Rafael Bengoa Osasun sailburuari.



anboto, durangaldeko asteakaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

BERBAZ >

“Euskal Herriko eskultoreei deutsedan miresmenagaz ohorea da saria irabaztea”

Manuel Fontiveros Arte Ederretako ikasle katalanaren lanak Berrizko eskultura lehiaketa irabazi dau



Manuel Fontiveros •

- Sant Boi de Llobregat
- 25 urte

Berrizko eskultura lehiaketako 18.000 euroak Manuel Fontiveros Arte Ederretako ikasleak jaso ditu. ‘Aldaketa’ izeneko lana aukeratu dabe epaimahaikide eta herritarrek. Gazte katalan honek urte eta erdian irabazten dauen laugarren saria da hau. Egunotan, saria jaso eta eskultura sortzeko lanetan, gurean izan dogu. Gogotsu erantzun deutso gure deiari. Arte Ederretako ikasle bati hainbeste sari jarraian jasotzea ez jako egunero gertatzen.

Zelan izan zenduen lehiaketaren barri?

Internetez eskultura lehiaketen deialdiak begiratu nituen. Bizkaian zela ikusita, hemen zeozer aurkeztu gura izan neban. Interesa neukan Euskal Herrian lan egiteko.

Sortze prozesua zelakoa izan da? Berrizera etorri nintzen inguruaz ezagutu eta ikusitako horren arabera eskultura sortzeko. Berriztarrek zeukiezen

kezkak bertatik bertara ezagutu gura nituen.

Zer iruditu jatzuzen berriztarrek? Euskal kulturadun herritarrek ezagutu nituen, eta eskultura be ildo horretan sakonduta egin gura izan dot.

Zer adierazi gura izan dozu? Euskal kulturari erreferentzia egiten deusan pilotagaz aska-

dagoz, eta 4,20 eta 1,70 metroko altuera izango dabe. Markinako harriagaz egindako pieza 2,5 tonako pilota da.

Inguruko materiala erabiliko dozu eskultura zertzeko? Egunotan hementxe nabil, materiala aukeratzen. Markinan harri blokea hartu eta hemengo tailer batean landu gurako neuke. Altzairua be

Sitges eta Torrelavitent be lehiaketetan parte hartu dot, eta sariak eskuratu ditut. Denak azken urte eta erdian etorri jataz.

Arte Ederretako ikasle batendako sari asko dira...

Bartzelonako unibertsitatean bosgarren urtean nabil. Harrotasun eta poztasun handia da lehiaketa horreek irabaztea. Sinistu be ez dot egiten.

Non jarriko dabe eskultura?

Eskultura Berrizko sarreretakobatean, Learreta-Markina kalearen amaieran jartzea da asmoa.

Euskal Herriko eskultoreak gogoko dozuz?

Pieza bat Euskal Herrian erakustea handia da niretzat.

“Pieza denak inguruko lantegietan egin gura ditut”

“Berrizera etorri nintzen, herritarrek zeukiezen kezkak bertatik bertara ezagutzera. Euskal kulturadun jentea ezagutu neban bertan”

tasuna erakutsi gura izan dot. Uztai edo eraztun nagusia euskal kultura irudikatzen dauen harrizko pilota zapaltzen ibili da, baina denporan zehar kulunkatuz libre izatea lortu dau. Ez da irabazle edo galtzailerik egindako omenaldia. Aldaketa zentzunari dei egin gura deusan lana da.

Zenbat zatik osatzen dabe? Altzairuzko bi piezak lotuta

hemengo galdara-lantegibatean landu gurako neukez. Planoak eginda daukadaz eta enpresekin hartu-emonetan nabil behar hori nork egingo dauen erabakitzeko. Izan be, eskultura hau 2010 urtearen barruan prest egoteko konpromisoa hartu dot.

Beste sari batzuk be irabazi dozuz. Bartzelonako beste lehiaketa batzuk irabazi ditut. Igualada,

“Lehiaketara proposamen oso onak aurkeztu ditue”

Gehien miresten ditudan eskultoreak Oteiza eta Txillida dira.

Lehiaketan maila handia izan dela dinoe.

Proposamen oso onak ikusi ditut. Proposamen asko aurkeztu ditue; guztira, 47 esan deustenez. Saria emoterakoan nire piezaren diskurtsoari garrantzia emon deusielarizten deusat, ze estetikoki beste obra batzuk kalitate oso handia zeukien.

Bi eskultura nabarmendu ditue. Esan dabenez, epaimahaikideek bi eskulturen artean zein aukeratu jardun dabe, aldekotasunak bardinduta. Halan be, herritarren botoekin saria neuk eskuratu dodala azaldu deuste. ■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

>DURANGO

Ona electroerosión enpresak 23 langilerentzat eskatutako iraungitze EREaren aurka mobilizatu da aste honetan enpresako komitea, "kaleratze traumatikoen" aurka dagoela eta erabakia "bidegabea" dela esanez.

Enpresako komitea ELAko sei delegatuk eta LABeko hiruk osatzen dabe, eta asteon enpresaren aurrean kontzentratu dira. Ostegun goizien lanuztea egin eben lan delegaritzaren aurrean be kontzentratzeko, adostasunik ez izatera horrek hartuko dau-eta azken erabakia.

Sindikatuuen ustez, enpresak egoera finantziero ona dauka, beraz, ez dago arrazoi ekonomikorik erabaki honetan

Ona enpresa liderra da mundu mailan dimentsino handiko makinaren produktzioan, eta Europar Batasuneko lehen produktore be bada. Gaur egun 108 pertsonak behar egiten dabe bertan, eta iraungitze ERE honek langileen laurdenari eragiten deutso.

LABeko ordezkariak erabaki honetan ez dau "arrazoi ekonomikorik" ikusten, enpresaren

Ona enpresak 23 langile kaleratzea planteatu dau

Enpresako langileen laurdenari eragingo leuskio iraungitze EREak



Enpresa komitearen kontzentrazioa enpresaren aurrean.

"egoera finantzieroa ona" dela dino, eta enpresak langileak kaleratzeko emoten dituen arrazoi produktibo eta organizatiboekin ez datoz bat, horrek "subkontra-

Sindikatuak ez dabe iraungitze EREa sinatuko eta asteon mobilizazioak egin ditue

tazinoa edo langile merkeagoak kontratatzea suposatuko leuke-lako", azaldu dau LAB sindikatu-ko ordezkariak: "Hori ez litzateke zilegi izango".

>ZORNOTZA



Fiat Evo kotxe barria aurkezteko ekitaldia AICn, Boroan

FIAT taldeak Zornotzako AIC aukeratu dau kotxe barria aurkezteko

Enpresa italiarrak AIC aukeratu dau kontzeptu barrizaille eta maila handiko instalazioak dituelako

FIATek, mundu mailan seigarren produktorea denak, Boroan, Zornotzan, aurkeztu dau aste honetan bere azkeneko ibilgailua: FIAT Evo barria.

Jose Luis Bilbao aldun nagusia pozik agertu da, eta eskerrak emon deutzaz FIAT taldeko kontseilari delegatu Carlos Gomezi

bere enpresaren azkeneko ibilgailua munduratzeko AICri emondako konfiantzagaitik.

Gainera, Bilbaok azpimarratu dauenez, horrelako jarduerak baliagarriak dira "hartu-emon zabalagoak sortzeko ibilgailuen egileekin, trebakuntza eta ikerketa lako gaitetan".

kolaborazioa



Ainhoa Iturbe
EHNE sindikatua

Amaitu da krisia

Hori da azkeneko asteetan jasotzen ari garena komunikabideetan: oraindik egon badagoela, baina ekaitzaren azkeneko euri tantak bezalako delat geratzen dena; laster eguzki izpiak ikusiko ditugula, berriz lehengo kontsumo, errenta, lan eta abar berdinetara helduko garela, eta, biba agintariak!, berriz zorientsu biziko garela.

Azkenean krisi hau negu gorri bat besterik ez da izan, ez da uste genuen glaziatoria heldu. Gogoratzen duzue? Krisiaren lehen kolpekadak izan zirenean, eskuak burura altxa eta ekonomia eta gizarte beraren modelo berraztertu eta aldatzea beharrezkoa zela esaten ziguten kapitalismoaren aztertzaile kapitalistazaleen ere. Ez zela posible munduak -gure munduak, ez herrialde pobreek- horrela jarraitzea. Ekonomia ezin zela subprime, eraikuntza eta erregai fosilak zituzten ibilgailuetan oinarritu. Ekonomia errelera joan behar zela, ez espekulatuare; hitz potolotan adierazten zutenek, ekonomia humanoago batera abiatu behar genuen kapitalismoa.

Tira, gu ikaratzeko kontuak besterik ez ziren. Banketxei diru publiko -hau da, guztiona dena- pila bat eman, koitaduak pikutara ez joateko; jendeari laguntza bat eman kotxe berri, altzariak eta abarrak erosteko; eta, artxila murtxila, txisteran desagerrarazi dute krisia. Gaixotasuna sendatzeko antibiotiko batzuk besterik ez dira behar izan, ez birusaren jatorria aztertzeko.

Hain iraganeko kontua da krisia, Durangalderako martxan dauden instituzioetako plangintzatan automozioa mantendu eta indartzeaz gain, gura lurrak, baserri-lurrak, nekazaritza-lurrak, aisirako erabiltzeko asmoa dutela. Indaba, patata, piper eta abarren ordez, golf zelaiak.

Lanetik irtetzerakoan pitch, putt edo putter batzuekin birdie edo bogey bat lortu. Eta krisia itzuliko balitz, zure caddyarekin komentatu ahal izango duzu lantegiko ERE berria.

The perfect way of life.

MINKENDU
MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]



Argazkia: Ana Dominguez

LITERATURA > TAILERRA

Irakurleen txokoak Iurretako bibliotekan

Antonio Tabucchi idazle italiar-portugaldarraren *Sostiene Pereira* lana izan zuten joan zen martitzeneko Iurretako Udal Bibliotekako Irakurleen Txokoan berbagai.

Portugalgo Lisboa hiriburuan, 1938 urtean Salazar diktadorearen erregimenean bizi zen Pereira izeneko kazetariaren istorioaren gainean jardun zuten Iurretako Udal Bibliotekako gaztelerazko hilabeteroko saioetan batzen diren 22 literaturzaleek.

Saio bakoitzean lantzeko hitzartzen duten liburuak lortzeko ardura hartzen dute bibliotekako arduradunek, eta liburuak irakurri eta guztien artean komentatzen dute iluntzetako saioetan

parte-hartzaileek. Isa Castillo ibiltzen da euskara zein gaztelerazko saioak gidatzen.

Eguazten iluntzean Iurretako Bibliotekan izandakoa da, bestalde, goiko argazkian agertzen den Irakurleen Txokoaren saioa ere. Euskarazko literaturzaleen txokoa izan da eguazten iluntze honetakoa. Hamahiru lagun batzen dira hilero-hilero aukeratutako irakurketen bueltan.

Albert Sánchez Piñol idazlearen eta Afrikan espezializatutako antropologo katalanaren *La pell freda* nobela izan zuten eguazteneko saioaren ardatza: Lander eta Zigor Garrok euskarara itzultitako *Larrua hotz* liburua izan zuten aztergai nagusi. ■ I.E.

Hilero elkartzen dira aldi bakoitzean aukeratutako irakurgaiaren bueltan

12 Musika eta antzerkia elkartuta

Ron Lala talde madrildarraren 'Mundo y final' izeneko antzezlanaren umore "kritiko eta zitrikoa" goatzeko aukera domekan, Durangoko San Agustinen.



13

'Kipularen bihotza' dantzan

Urtarrilaren 29an, Berrizko kultur etxean egingo du Sua Urana izen artistikoa darabilen dantzariak 'Kipularen bihotza' lanaren aurrestreinaldia.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Ironia, irudimena eta kritika batzen dituen 'Mundo y final'

Domekan, urtarrilaren 24an, 19:00etan da Ron Lalá taldearen ikuskizuna

Antzezle eta musikari diharduten bost lagun dira Ron Lalá taldearen *Mundo y final* ikuskizuna sortu dutenak. "Desagertzeko bidean dagoen planeta honen azterketa komikoa" egiten dute, domekan, urtarrilaren 24an, Durangoko San Agustinerak dakarten antzezlanean. Musikaketa hogein instrumentu eta *sketch*ek markatzen duten erritmo bizian oinarrituta dago Ron Lalá madrildarren azken ikuskizuna.

"Umora kritiko eta zitrikoa" egiten dutela diote taldekideek

Perkusioa, gitarra akustiko zein elektrikoa eta beste hainbat instrumentu baliatzen dituzte antzezle-musikariek domekan Durangon aurkeztuko duten laneko reage, tango eta rumba doinuak sortu eta emateko.

Ron Lalá taldearen aurreko lanaren estiloan, "umora kritiko eta zitrikoa" egiten dute *Mundo y final* honetan, taldekideek eurek diotenez. Yayo Cáceres zuzendariak azpimarratu duenez, taldearentzako "umora gauza serioa da, baina horrek ez du barrerik ez egitea



Musikari eta antzezle ere badiren bost lagun izango dira oholztan

esan gura", euren berbatan. Antzezlanaren testuak eta musika, biak dira ikuskizun honetarako beren beregi sortutakoak. Ohol-tza gainean lau madrildar eta bilbotar batek jardungo dute, "barrez lehertuta akabatuko den mundu batean", *Mundo y final* izeneko istorioa kontatzeko. ■ I.E.

ERAKUSKETA > INAUTERIAK

Euskal Herriko inauteri ezagunak batzen dituen erakusketa ikusgai dago Elorrioko Iturri kultur etxean. Antolatzaileen berbatan, erakusketaren helburua jendeak hain ohitura zaharra ulertzea eta bere garrantzia mirestea da. Inauterien "naturaltasuna mantentzeko" lanean lagundu gura dutela gaineratu dute. "Egun, jende masifikazioa dela-eta, orain gutxi arte lagunartekoak edo herritarren artekoak eta ezkutukoak izan diren inauteriak arriskuan daude orain", azaldu dute.

Jendeak inauterietako ohiturak ulertzea da erakusketaren asmoa

Ikusgai dauden aratusteetako pertsonaien irudiak Jose Migel Barandiaran, Satustregi, Jimeno Jurio eta beste ikertzaile batzuen testu laburrekin osatu dituzte. Argibide horiekin tradizio bakoitzaren oinarria, esanahia eta beste ezaugarri batzuk ezagutzera eman nahi izan dizkiete bertarantz direnei. Belarraren usaina eta musika ere irudi eta testuekin uztartzen dituzte giro egokia sortzeko asmoz.

Nafarroan sortutako Ahari

elkartea da erakusketaren egilea eta Elorriongo geldialdia egin ondoren Portugaletera lekualdatuko dute. Erakusketa urtarrilaren 30era arte izango dugu Iturri kultur etxean, astelehenetik barikura goizeko 09:00etatik gaueko 22:00etara eta zapatuetan 09:30etik 14:00etara.

Deskribapena

Euskal Herriko inauterietako hainbat pertsonaia deskribatzen ditu Elorrioko ikusgai dugun erakusketak. Altsasuko inauterietako Akerria, Momotxorroa eta Sorgina. Ituren eta Zubietako Zantantzarra, Hartza eta Ijitoa. Lantzeko Zaldiko, Ziripot, Txatxo, Miel Otxin eta Perratzailea. Ipar Euskal Herriko Katalingorri eta Donibaneko Zezengorri, Ahari, Basurde, Gaueko, Zaldia eta Lamia. ■ J.G.

Irudiak ikertzaile ezagunen testuekin osatu dituzte

Elorrioko egon ostean erakusketa ibiltaria Portugaletera doa

Inauteriei buruzko erakusketa Elorrioko Iturri kultur etxean

Asteon zabaldu duten erakusketa urtarrilaren 30era arte dago zabalik



Altsasu, Ituren, Zubietako, Lantz eta Iparraldeko inauteriak erakusketan.

GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia Euskaltzaina

Gerediaga Astolan (1965-01-22)

Gaur betetzen dira 45 urte Gerediaga elkartearen sortzea erabaki zela Astolan. Ernalduta zela esango neuke, gero, handik ia bost hilabetera, Abadiñoko Soloenean jaio baitzen. Astolan esanda askok pentsatuko dabe gaurko egoitzan erabakiko zela. Auzitegia hutsik eta jausteko arriskuan zegoen. Atxakia auzoko jaia harturik, San Bizenti, badaezpada afari bat antolatu genduen errepide ondoko nire orduko etxean, eta lagun talde bat bildu ginen.

Nortzuk ez nago guztiz seguru, baina Koldo Altzibar, handik laster jesuita sartuko zena, ondo gogoratzen denez, nik kalkulatu-tako baino lagun bi gehiago ei etorri zirelako – sukaldariaren larritasunerako, nire ama zena izan zen afari prestatzailea, Altzibar auzokideari agindu eutsan txuleta bi gehiago ekartzeko Matienako harategitik – zazpi lagun honeek batuko ginela uste dot: Koldo Altzibar, Astola ahizpak (Conchita eta Charines), Jesus Astigarraga, Leopoldo Zugaza eta Carmen haren emaztea eta ni neu.

Afariaren helburua: auzitegia ohia turismo paradore bihurtzeko asmo arriskutsua entzunda – garai haretan J. Arespachoz zuzendutako Madrilen Turismo zuzendari, elorriar jatorrikoa eta Fraga ministroaren hurrengo karguduna – plan hori ez gauzatzeko, lehenengo eta behin eskualdeko ondarea eta kultura zaintzeko elkarte bat sortzea. Bistan geunkan bildutakook Durangaldeko kultura euskal kultura zela, holan azaltzea debekatzeko bidea izango baitzen dikta-durapean. Hain zuzen be, ekainean adostu eta onartutako bost helburuetan, eskualdea aipatzen genduen beti; ez Bizkaia, ez Euskal Herria, ez Espainia, ez beste.

Urte batzuetara Merindadeko Auzitegia konpondu arte, elkar-terean egoitza nire etxea izan zen. Halan dino Bizkaiko Gobernu Zibilaren agiriak: "Asociación domiciliada en Abadiano, Casa Nueva de Astola, s/n, piso 1º, derecha". Berrogeitabost urteon gomutza eta lekukotasunez izan bedi!

DANTZA > ELKARRIZKETA



Leonor Uriarte

“Neure burua aurkitzeko bidea da obra bakotxa”

Orain bost urte, Bartzelonara bizitzera joan berri zela, deitu eutsien Udaleko Emakumearen Saitetik. Kale ikuskizun bat erakutsi eban Olakueta plazan: agur oso gozoa izan zela nabarmendu deusku **Sua Urana** izen artistikoagaz jarduten dauen berriztarrak. Bost urteren ondoren, urtarrilaren 29an, Berrizko Kultur Etxera dakarskuna, obra oso hunkigarria dela ohartarazi deusku: oso pertsonala ei da **‘Kipularen bihotza’**

‘Kipularen bihotza’ lanaren aurrestreinaldia egitera zator Berrizera.

Berez uda ostean estreinatuko dogun lana da, baina Berriztik areto barrurako lan bat eskatuz deitu eusten, eta oraindino lantzen nenbilen lan bat baneukala erantzun neutsen; guztiz bukatuta egon ez arren, aurrestreinaldia egitea eskaini neutsen. Lan hau Berrizen aurkezteak ilusino handia eragiten deust, oso pertsonala delako.

Zeure buruari presino apur bat sartu behar izan deusazu lana amaitzeko?

Bai, apur bat estresatu egin gaitu taldekide guztiok; izan be, talde guztia ez daukat Bartzelonan. Salamanca, Euskal Herria eta Frantziako taldekideak daukadaz, eta apur bat lan erritmo biziagoan jardutea suposatzen dau aurrestreinaldiaren zitat. Dantzari bi (Maica Fernandez eta ni) bideo-sorkuntza lantzen dauen Pilar Martin, soina lantzen dauen Arturo Cancio artista, Javier Ortega zinegilea, Leonor Uriarte argazkilaria eta *Carmen y Carmen* jantzien arduradunak gara taldekideak.

Oso lan pertsonala dakartzula dinozu...

Orain arte, egin dodan obrarik garrantzitsu eta intimoena dela uste dot. Orain bost urte, Bartzelonara etorri nintzenez, abiatu neban bidaia dago bertan, eta artista gehien lanean egoten den “nor naz ni?” galdera be bai. Momentu haretan, baina, benetan ez nekiena nire bihotzean zer zegoen zela ohartu nintzen. Nor nazen baino, bihotzean zer daukadan bilatzetik sortzen joan da *Kipularen bihotza*. Bidaia

horretan material asko eta oso pertsonala sortu dot, eta horri forma plastiko eta poetikoa emoten joan naz. Oso intimoa da, neure burua zalantzan ipintzen dodalako obran.

Sortze prozesu luzea eta gogorra be izango zen lan honetakoa...

Alde gogorra eta oso atsegingarria be izan dau; entseguetatik, zelanbait esateko, “kolokatuta” ateratzen nintzen. Entsegu lokaletik denpora luzean irauten eustan irribarre bategaz irretzen neban. Jenteak esaten eustan: “Zer hartu dozu? Nik be horixe gura dot hartu!”. Nire lan gehienak dantza garaikideko Butoh teknikan oinarritzen dira.

Memoria eta informazioa zelan gorputzean gordeta izaten ditugun aztertzen dogu: ahaztuta zeunkazen oroitzapenak gorputzaren mugimenduen bitartez ateratzen dira. Hasieran ez zara ohartzen mugimendu bakotxa nondik datorren, baina apurka-apurka identifikatzen joaten zara: ametsekin legez.

‘Kipularen bihotza’, beraz, teknika japoniarragaz sortutakoa da.

Urte asko daroat Butoh teknika lantzen: 1998tik sortu ditudan obra guztietan landu dot teknika hori. 1980ko hamarkadaren amaieran, Salamancan bizi nintzela, Madrilerajoaten nintzen antzerki eta dantza ikuskizunetara. Japoniar dantzari baten obra bat ikusi neban, eta, zer zen ez nekien arren, benetan harritu ninduen. Galdetzen hasi nintzen, eta horrela joan nintzen Butoh dantza ezagutzen. Orduetik dihardut arlo horretan sakontzen. Japonen ez dabe lar ondo hartzen dantza mota hau, zuzenean, emozionalgia eta bortitzegia iruditzen jakelako. Eskandalagarria da eurentzat. 1950eko hamarkadan teknika honegaz egin eban lehenengo lana, *Colores*

prohibidos izenekoa, egin eban dantzaria koreografoen elkartetik bota eban, eta lana debekatu. Bigarren Mundu Gerraren ostean Estatu Batuek ezarri eban gobernu bereziaren garaian sortu zen, eta inposaketa horren kontra, euren buruei “nortzuk gara gu” galdetzen hasi ziren japoniarrak. Nortzuk garen jakiteko, zapaldua eta estaldua izan den guztia kanporatu beharra aldarrikatzen dau dantza mota honek.

“Materialaren benetako bilaketa egiteko aukera emoten dau Butoh-ak”

“Lan hau Berrizen aurkezteak ilusino handia eragiten deust, oso pertsonala delako”

Zergaitik geratu zara Butohan?

Materialaren benetako bilaketa bat egiteko aukera emoten deustalako. Dantzan, koreografiak eginez hasi nintzen, dantza pausu batzuk ikasi eta gero milaka aldiz errepikatuz. Dantzaldi guztietan pausu berdinak ziren, emanaldi batzuetan emozino zehatz bat emon zeikien arren. Butoh teknikagaz, ateratzen den materiala bakarra eta oso pertsonala da. Dantza garaikidearen anti-teknika da, ez dau estilo, estetika edo aurreiritzi bat finkatzerik bilatzen. Ateratzen joaten den material guztia hartzen da aintzat, eta oso lengoia pertsonala doa sortzen horrela. Obra bakotxagaz nire burua berriro aurkitzeko bidea da. Irakasleek esaten dabe Butohan, arima hamar zentimetro eta gorputza zentimetro bakarra mugitu behar dela.

Dantza ulertzeko beste modu bat da.

Dantza mugimenduaren arkitektura legez hartera gagoz ohituta, baina hau arimaren dantza emozionala da. Prest egon behar dozu sortzen den edozer onartzeko; baita mugimendurik eza onartzeko be. Sortzen dena, dantzan dabilen dantzariagandik haratago doa: ikusleak ikusten dauena, dantzatik sortzen den baina haratago dagoen unibertsoa da, bere barruagaz konektatzen dauena. Gure ikuskizunen ondoren, “nik ez dakit ulertu dodan ala ez, baina niri hau gertatu jat”, edo “hau sentitu dot” esan izan deuste ikusleek. Gauza poetikoez, euren sentipen eta emozioez egiten deuste berba, ez mugimenduez. Euren esperientzia pertsonalaz egiten deuste ikusleek berba. ■ I.E.

Kipularen bihotza -ren zati bat preso taldeari

“Urtarrilaren 29ko Berrizko aurrestreinaldiaren aurretik, Cuatro Caminos kartzelako preso talde baten aurrean erakutsi neban lan honen zati bat. Gizonak ziren ikusle guztiak, oso urduri nengoen, baina benetan gogoangarria izan zen emaitza. Emanaldiaren ondoren eurekin solasaldi bat izatea ipini neban baldintza moduan, eta guztiek bukatu eban negarrez.

Emanaldiaren osteko solasaldi horretan gertatutakoa bizi izan dodan gauzarik liluragarriena izan zen: horren ostean esan neban, sekula dantza gehiago egingo ez baneu be, esperientzia horregaz asebeteta nengoekela. Galderak egiten eta euren esperientziak kontatzen hasi zirenean, ‘Zuk uste dozu zer bait oso txarra egin dauen norbait pertsona ona izan leitekeela berriro?’, bota eustan preso batek. Bere emaztea hil ebalako zegoen galdera hori egin eban gizona kartzelan, eta zortzi urte zeroa-

zen barbarik egin barik. Nik esan neutsan ez dodala pertsona berez onak edo txarrak direnik uste: guztiok sufritzen dogula, baina sufrimendu horrek gaizki jokatzera bidertzen dituela zenbait pertsona. Eta negarrez hasi zen.

Lana zintzoa bada, jenteari barruraino ailegatzen jakola frogatu neban preso horren aurrean beste behin. Eta egia esan, dantzatzen dodanean ni neu be asko emozionatzen nau obra honek: negar egiten dot. Uste dot jentea identifikatua sentituko dela, eta ingurukoekin daukiezen erlazinoei buruzko gogoeta egingo dabela. Pertsonen arteko hartu-emonak oso konplexuak dira beti: norberak sentitzen dauena badakigu zer den, baina besteak zer sentitzen dauen ez dogu jakiten. Obra honek gehien maitatzen doguzen pertsonetikiko erlazino sakonenen inguruan gogoeta egitera bultzatzen dau. Beldurrez, eta beldurrei aurre egiteko moduz. Transformazio baten inguruan be badihardugu; beldur horreei aurre egiten deustegunean izaki askoz askeagoa zelan sortzen den erakusten dau lanak.”

HISTORIA > ERAKUSKETA

Uribarriko Andra Maria elizaren historiari begiratua Museoan

Urtarril osoan Durangoko Arte eta Historia Museoan dago bisitagai



Uribarriko Andra Maria elizan lehenengo bataio-agiria osatu zuteneko 500 urteen inguruan prestatutako askotariko ekintzak borobiltzen dituen erakusketa da urtarilean Durangoko Museoak har-

Durangoren eta elizaren bost mendeko historia dokumentuetan

tu duena. Trentoko 1545 eta 1563 arteko Kontzilioan elizak hartutako erabakiaren arabera, "aurretik parrokietan sakramentu liburuak eduki behar zituzten eliztarrek parrokiagaz zituzten hartu-emanen gaineko datuak

jasotzeko". Baina erakusketan azaltzen denez, Trentoko erabaki horren aurretik hasiak omen ziren Uribarriko Andra Marian bataio-agiriak osatzen. Museoan ikusgai dago 1510eko bateo-partida, orain 500 urtekoa.

Uribarriko Andra Mari eliza 1510-2010 izena ipini diote elizaren historiaren adierazle diren hainbat dokumentu, koadro eta objektu biltzen dituen Durangoko Museoeko erakusketari.

Duela 500 urteko durangarren eta Durangoren erakusle

Urtarrilaren 29a arte izango da erakusketa Museoan ikusgai

Urtarrilaren 29a arte Arte eta Historia Museoan ikusgai izango diren artean, besteak beste, elizaren eraikuntzen marrazki eta planoak, garaiko Durangoren eta durangar ezagunen irudiak erakusten dituzten koadroak daude.

Formatu handiko koadroen artean, bestalde, Durangoren historiako pertsonaia ezagunen erretratuak daude: Fray Juan de Zumarraga Mexikoko lehenengo apezpikua izan zen durangarraren, garaiko kaligrafo onenentzat hartutako Juan de Iciar-en, edo Mexikon bizi izan zen Ambrosio Meaberen erretratuak daude ikusgai.

Andra Maria elizaren baina herriaren historiaren gordailu garrantzitsuak ere badiren hainbat dokumentu ere batu dituzte erakusketaren antolatzaileek: uriaren garaiko arkitektura erakusten duten marrazkiak edo uribilduaren XV. mendeko plano hipotetikoak, esaterako.



DANTZA > EMANALDIA

Hiru dantzakeraren eta erritmoren arteko erronka

Joan zen barikuan, Elorrioko Arriolan izan zen musika eta dantza elkartuz Yllana talde madrildarrak ekoitzi duen azken ikuskizuna: *Hermanos del Baile* izenekoa. Besteak beste, aurretik *Pagagnini* ikuskizunean bezala, musika eta bestelako adierazpideak uztartzen dituzte Elorrioren aurkeztutako *Hermanos del Baile* lanean ere. Kasu honetan, bai-

na, dantza da ikuskizunaren ardatza. Dantza eta dantzarien ohol-tza gaineko jokoak.

Bateria eta kutxa flamenkoa jotzen dituen musikaria atzealdean dutela, flamenkoa, break-dancea eta klakea egiten dituzten hiru bikote aritzen dira elkarri erronka eta barre egiten. Jantzera eta jarrera desberdinak erakutsi arren, finean hiru bikoteak batzen dituen dantza dela erakusten du ikuskizunak.

Dantzagaz barik, antzerkiagaz daukagu Arriolan hurrengo hitzordua: urtarrilaren 29an, 22:00etan, Jose Ramon Soroiz Joseba Apaolaza eta Jabier Mugu-ruzaren *Aitarekin bidaian*. ■ I.E.

'Aitarekin bidaian' antzezlanaren Arriolan, urtarrilaren 29an



Ana Domínguez

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



URTARRILAK 22 22:00etan
RUPER ORDORIKA
KONTZERTUA. Sarrera: 10-12 euro.



URTARRILAK 29 22:00etan
BONECRUSHER FEST 2010
KONTZERTUA. Sarrera: 20-25 euro.

URTARRILAK 30 22:00etan
GARI
16 LORE diskoaren aurkezpena
KONTZERTUA. Sarrera: 8 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



MUNDO Y FINAL

Ron Lal (Madrid)

Urtarrilak 24 • 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11:51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

HITZ

Liburudenda

ALMACENES ARRASATE



Kataide Industriegunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

**ORAIN
DURANGON!**

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



SAGA 194
TV Telefunken 19"
199 €



22 LH-2000
TV 22" LG
240 €



26 LH-2000
TV 26" LG
HD Ready
360 €



32 LH-3000
TV 32" LG. Full HD. 1080
470 €



37 LH-3000
TV 37" LG
Full HD. 1080
550 €



1200 b/min
8 Kg

A⁺ Saliakopon energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

450 €



1200 b/min
7 Kg

A⁺ Saliakopon energetikoa

GARBIGAILUA WAE 24472FEP

450 €



7 Kg

B Saliakopon energetikoa

LEHORGAILUA WTC 84101EE

375 €



A Saliakopon energetikoa

ONTZI-GARBIGAILUA 2LF013SX

435 €



1850 X
600 X
600

NO FROST

A Saliakopon energetikoa

HOZKAILUA DREAMG 185

490 €



Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MEKEKAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELATUKO DIZUGU	+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

Segurtasunik bako guneak identifikatu ditue emakumeek



Berdintasun Saila

Hiri Debekatuaren Mapa gaurkotzeko diagnostikoa egin dabe Durangon. 2006an egin zen lehenengoz azterketa hau, eta urteotan aldaketa urbanistikoak egon direnez, Berdintasun Sailak barritzea erabaki dau. Andren parte-hartzeagaz identifikatu ditue segurtasun txikiko puntu beltzak.

Adin guztietako 35 emakume inguruk parte hartu eben tailerrean

Andragunea aukeratu eben, joan zen asteburuan, Hiri Debekatuaren Maparen diagnostikoa egiteko. Durangoko Udaleko Berdintasun Sailak bultzatuta, orain dela lau urte osatutako mapa aztertu eta eguneratzeko lanteria prestatu eben. Parte hartu eben emakumeek, kalean egotean beldurra edo arriskua sentitu ahal izateko ezaugarriak ditueen guneak zehaztu zitueen. Izan be, indarkeria matxista eta eraso sexistek sortzen daben ondorio aipagarrienetako bat segurtasun falta da.

Bariku arratsaldean mahaiairen bueltan elkartu ziren partaideak, mapak eskuetan hartu eta eritziak konpartitzeko. Zapatuan, oster, kalera irten eben lekuak

zuzenean ikusteko. Berdintasun Saileko lehendakari eta alor bereko zinegotzi den Goiztidi Diazek, parte-hartzaileek eginiko "lan bikaina" azpimarratu eta esker-tu dau. Diazek azaldu deuskunez, "ezinbestekoa iruditzen jaku herriko hainbat lekutatik igarotzean emakumeek euren askatasuna mugatuta ez izatea beldurra sentitzen dabelako". Horregaitik, "herriaren diseinu urbanistikoan emakumeekin erlazionaturik egon leitekezen segurtasun arazoak identifikatzea dogu helburu", segitu dau zinegotziak.

Durango urbanistikoki aldatzen joan da urtetik urtera, eta "egoki" ikusi eben puntu beltz zaharren balantzea egin eta sortu diren barrien zerrenda egitea.

Hainbat ikuspuntu

Adin guztietako 35 emakume inguru batu ziren tailerrean, bakotxa bere eritzi eta sentsazioekin. Antolatzaileak "pozik" agertu dira balorazioa egiterakoan, "talde aberatsa" osatu ei zelako.

Esperientzia barria zen askorentzat, eta lagin moduan jaso dogu Monica Muñizen testigantza. Berak dinonez, ikuspuntu ugari zegoen bertan, baina halan be, "kontsentsu handia" lortu eben azkenean. Ondo argizatu bako kaleak eta eraikitzen dabilzen eremuak aipatu deuskuz puntu beltz moduan. Argitu gura izan deusku, beretzako Durango ez dela herri "arriskutsua", baina emakumeen egoera berezia dela. Judoko monitorea da Muñiz, eta bere asmoa "asteburuan ikasitakoa eta ikasleekin lantzea da".

Azterketaren ondorioak atera eta "arazoak konpontzeko lanak martxan jartzea izango da hurrengo pausua", Diazen berbatan. Udaleko sailetan lanean dabilzen sentsibilizatu eta genero ikuspegia alor guztietan txertatzea gura dabe. ■ M. Onaindia

Ikuspuntu ugari zegoen bertan, baina "kontsentsu handia" lortu eben

Ondo argizatu bako kaleak eta eraikitzen dabilzen eremuak, puntu baltzen artean



“30 bat puntu gatz urten ziren”

GEA 21 kontsultoriako arduraduna da Maria Naredo. Durangoko Hiri Debekatuaren Maparen diagnostikoa koordinatzen dihardu, eta joan zen asteburuan uriko emakumeen eritziak jaso zituen teknika parte-hartzaile baten bidez.



Ana Domínguez

Maria Naredo •

- Diagnostikoaren koordinatzailea
- Madrildarra, 39 urte.

Joan zen asteburuan Durangon egon zinen tailerra dinamizatzen. Zelan baloratzen dozu? Oso interesgarria izan zela uste dot. Adin guztietako jentek parte hartu eban: gazteenak 12 urte zeukazen, eta zaharrenak 77. Okupazioari jagokonez be, jubilatua, etxeko andreak... Bestalde, etorkin batzuk be izan ziren. Beraz, esan leiteke arrakastatsua izan zela aniztasun eta kopuru aldetik.

Ze sentsazio jaso dozu bertatik?

Emakumeek bat egiten eben puntu askotan. Izan be, ulertu behar da segurtasun gabeziaren sentsazioa ez dela kasualitatez sortzen. Zaindu bako eta mugimendu bako eremu publikoekin dauka zerikusia. Orokorrean, pertsonen zirkulazio bako guneek sortzen dabe segurtasun eza. Hori txarragoa da, gainera, ondo argiztatu barik badago edota erreferentziarik ez badau eskaintzen. Tuneletan, lur-azpiko pasabideetan, bidegorrietan edota parkeetan kale itsuaren sentsazioa areagotzen da.

Ze emaitza jaso dozu?

Oraindino, lana guztiz amaitu barik dago; partaideen eritzi eta ekarpenak paperera ekartzea ezinbestekoa da. Baina, esan neike, gitxi gorabehera 30 bat puntu gatz urten zirela, eta horretatik dozena bat kritikoa izan ziren. Eztabaidaren ostean, adostasun handiagoa zegoen puntu batzuen gainean. Gauzak hobetzeko proposamenak be jaso genduzen.

Lana amaitzeko pausuak falta dira, beraz.

Datozen asteetan, emakumeengandik jasotako

guztia dokumentu batean batuko dogu, eta Udaleko hirigintza, garraio eta segurtasuneko teknikariekin landuko dogu. Hori oinarritzkoa izango da, eta ez bakarrik eurekin kontrastatzeko; eremuen hobekuntza egiteko proposamenak fintzeko be bai.

Beste herri edo uri batzuekin alderatuta, zer esan leiteke Durangori buruz?

Igartzen da kontu hau Durangon ez dela barria. 2006an be landu zen, eta gainera, Udalak hobekuntza proposamen batzuk garatu ditu geroztik. Egia da, baita be, puntu batzuk errepikatu egin direla; hor dago esaterako Ermodoko Galerien edo pasabideen kontua. Horreen kasuan, buruari buelta batzuk emon beharko litxakioz.

Zure ustez, zer egin leiteke arazoak konpontzeko bidean ipintzeko?

Eremu horreen azterketa egiterakoan, gauza bi izan behar dira kontuan: hirigintza aldetik egon leitekeen gabeziak batetik, eta egoera sozialak emakumeengan sortzen dauen beldurra bestetik. Hirigintzari jagokonez, gune kritikoei 24 orduko bizia emon izateko. Beldurraren kasuan, segurtasun eza subjektiboa da. Horregaitik, autoestima edo autodefentsa ikastaroen bidez, adibidez, emakumeek autonomia eta segurtasun gehiago edukitzea landu beharko litzateke. Ondorio horreek lan-taldeetan be azpimarratu zituen parte-hartzaileek.

“Ermodoko pasabideen puntua errepikatu da”

“Gune kritikoei 24 orduko bizia emon behar litxakie”

1. Pausua: Esperientzi trukaketa

Bariku arratsalde, hilaren 15ean, Pinondo Etxean kokatzen den Andragunean batu ziren diagnosiko parte-hartzaileak.

Taldeka banatuta, bakotxak igarritako puntu baltzen inguruan eztabaidatu eben, eta gero, guztiek batera mapa osatu eben.



Ana Domínguez

2. Pausua: Guneetara ibilaldia

Durangotik zehar ibilbidea egiteko, herria geografikoki lau eremutan banatu eben: ipar-ekialde, ipar-mendebalde, hego-ekialde eta hego-mendebalde.

Lau talde osatu zitueen, guztietan dinamizatzaile batek lagundurik. Bakotxak eremu bat hartu eta markatutako puntu baltzak zuzenean bisitatu zitueen.

ERITZIA >

Gutunak @

EAJ inoren sinadurak bere egin guran

Lerroburu batek arreta piztu deusku, onerako: 1.000 sinadura osasun zerbitzuak Zelaietan jarraitu daian. Zorionak denoi! Baina, ez jaku hori deigarri egin, jakinda Zelaietako herritar askok zenbat urte emon dituen borrokan mediku etxearen alde, eta Larrauri alkate zen garaitik zenbatek egin daben lan pediatria eta mediku kontsulta Zelaietan izaten jarraitu daigun. Gaur egun, lanean aritutako horretako asko guraso edo aitita-amama dira. Aspaldiko kontua da, beraz.

Beste kontu bat, deigarri egiteaz aparte, onartezina be egin jaku, azpitu-tuluan irakurri doguna: EAJk eta Muntzarazko MTSTZ auzo elkarteak bildu ditue sinadurak Zelaietako osasun zerbitzua mantentzeko. Gezurra!

Auzo elkarteak berak bildu ditu sinadura horreek guztiak. Sinatu daben lagun askok ez dauka loturarik inongo eragile politikogaz, eta bakotzak bere izenean sinatu dau. Baina EAJk beretzat hartu ditu sinadura horrek, izan be, Muntzarazko auzo elkarte bozeramaileak bigarren prentsaurrekoa EAJren egoitzan egin izanak be badauka zerezana (bigarren hau agertu da, batez be, prentsan), alderdiko presidenteagaz eta lehenengo zinegotziagaz, eurena den kartel eta guzti, "Uri Buru Batzar" lemapean. Lotsagarria, benetan. EAJko arduradunek iruzur egin deusie herriari. Eta birritan, gainera. Batetik, inoren sinadurak euren gandu dituelako, eta, bestetik, orain daukagun arazoa euren itzikeria eta arduragabekeriaren ondorio delako, gobernuan egon zirenean gauzak ganoraz egin ez izanagatik.

Orduan herritar askok eta askok eskatu eben herrian mediku etxea ez botatzea, edo botatzekotan mediku zentro handiagoa egitea Zelaietan. Zergaitik ez zen zentro barria dagoen lekuan lokal handiagoa erosi? Zer egingo dogu orain? Zelaieta eta Muntzarazko handituz doaz. Hartu al dozue kontuan hori Abadiñoiko Independentetako? Bardin gertatuko da irakaskuntzan, osasun arloan, zein ekipamenduetan...

Herritarrok oso argi daukagu. Mediku zentroa eta eskolak Zelaietan bertan nahi ditugu, denok daukagu-eta horretarako eskubi-dea.

Amaitzeko, zorionak sinatu dogun guzti-guztioi.

Xabier Agirre Aresti, Ander Urizar Azkarate, Endika Zarrabeitia Salterain eta beste auzotar batzuk - Abadiño

Klik batean @



Errepideko badenak

Iurretako tuneleko irteeran abiadura moteltzeko goragune bi jarraian jarri ditue. Bertatik pasatzen diren gidariek abiadura moteldu arren, bata bestearengandik gertu dagoenez "salto handia" egiten ei dabe. Gainera, herrigunera sarbidea dela kontuan hartuta geroago eta trafiko handiagoa izaten da bide honetan.

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Balantza alde batera okertzea

Udal ludoteka proiektua jarri zuten martxan iaz. Helburua zen, besteak beste, ingurumenaren aldeko baloreak hedatzea, hezkuntza ez sexistaren alde egitea eta euskararen erabilera indartzea gazteen artean. Zerbitzuaren bultzatzaile PSE-EE izan zen, eta Durangoko enpresa gazte batekin, eta horregatik harro gaude.

Baina, gure harridurarako, duela pare bat hilabete enteratu ginen zerbitzuaren kudeaketa, inongo abisurik gabe, beste enpresa bati esleitu zitzaioa; gainera, kontratazio-baldintzen ple-gua ez zen dagokion informazio batzordetik pasatu.

Inozo samarrak gara, zeren hilabete asko dira EAJk esleipenen eta dirulaguntzen gaineko informazioa batzordeetan aurkezten ez digula, euren asmoa ahalik eta azalpen gutxien ematea baita. Baina harrigarria da, argibideak askotan eskatu badizkiegu ere, ez dugula inongo erantzunik jaso, eta horrekin udal ordezkariok Udalaren gaineko dozein informazio eskuratzeko daukagun eskubidea urratzen ari dira. Inoiz, ordaindutako fakturen gainean ere argibideak eskatu izan dizkiegu, baina ez digute erantzun, eta udal teknikariren batek ere izan dezake erantzukizuna horretan.

Ludotekara itzuliz, harrituta geratu ginen, argi eta garbi ikusi baikenuen balio handiegia eman zitzaioa gerora esleipendun suertatu zen enpresari eta, aldiz, balio txikiegia lehendik zegoenari. Esaterako, deigarria da era honetako zerbitzua martxan jartzeagatik inongo punturik eman ez izana, kontuan izanda, gainera, Durangoko neska gazteen enpresa batez ari garela. Oraingo enpresaren egoitza ez dago Durangon.

Esleipenaren balantza legal-tasunetik aldendu barik alde batera okertzea posiblea da.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko urtarrilaren 22a - 8. urtea - 358 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Genma Aldalur. **Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta. **Testu zuzentzailea:** Igor Elortza eta Garikoitz Bragado.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez eta Kepa Aginako.

anboto

komunikabideak

3



dimentsiotan

a

astekaria



anboto, durangaldeko astekaria
Egin zaitez harpidedun



W

webgunea

irratia

99.0

FM



i



AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 24an, 19:00etan

AMAIERA ZOROA

Listo, ordu gitxi falta da munduaren amaierarako. Azken ordu horreetan amaiera saihesteko ahaleginak egingo ditue *Mundo y final* antzezlanean, musika eta umorea lagun. Egoera absurdoz betetako lanean, gizarteari kritika umoretsua egiten deustsue Ron Lalá taldeko aktore-musikariek, eguneroko bizimodu zoroa ardatz hartuta. Lortuko ete dabe munduaren amaiera saihestea? Domekan ikusiko da hori, San Agustinen.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » **'Fase rem' (Kaos teatro)**, antzerkia umeentzat, txontxongiloak. Urtarrilaren 22an, 17:30etan. Kultur Etxean.



DURANGO

- » **'Mundo y final' (Ron Lalá)**, Urtarrilaren 24an, 19:00etan, San Agustinen.

ERMUA

- » **'Mime for laughs' (Yreneusz Krosny)**, Urtarrilaren 22an, 22:15etan, Lobiano Kultur Gunean. Sarrera 5 euro.



BERTSOAK

ABADIÑO

- » **Berto afaria Maialen Lujanbio eta Jon Maiagaz**, urtarrilaren 29an, gaueko 21:00etan, Gaztetxean. Txartelak Oregi jatetxean eta Larrano tabernan dagoz salgai.



BESTEAK

ERMUA

- » **Extremadurako txarriboda**, urtarrilaren 24an, goizeko 10:00etan hasita, Extremadurako Zentroan.

DURANGO

- » **Euskal Herriko II. Mus Txapelketa, Durangaldeko kanporaketa izango da.** Urtarrilaren 22an, gaueko 22:00etan. Izena emateko epea: Herria auzo elkarte txapelketa baino ordubehe lehenago. Bikoteko: 20 euro.



BERBALDIK

DURANGO

- » **Bularra emateari buruzko mitoak eta egiak** azalduko dituen berbaldia antolatu dabe urtarrilaren 25ean Pinondo Etxean arratsaldeko 18:00etan.

DEIAK

BERRIZ

- » **Sahararen aldeko euskal karabana.** Urtarrilaren 29a arte iraungo du. Eskolan, dendetan eta udal-etxean arrosa, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, sardinak eta konpresak batuko dira.

DURANGO

- » **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea.** Eguenero, arratsaldeko 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Plataforma Feministak deituta.
- » **Odola emateko aukera,** eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

DURANGALDEA

- » **AHTaren kontrako Hendaia-ko manifestaziorako** eskualdean autobus bi antolatu dira biharko: 13:30etan Zornotzatik irtengo da bat; lurreta eta Durangon geldituko da. Bestea Elorriotik irtengo da 13:30ean, eta Atxondo eta Abadiñon geldituko da.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- » **Iosune Urriagaren margolanen erakusketa.** Urtarrilaren 23ra arte egongo da ikusgai, Errota kultur etxean.

ELORRIO


- » **Euskal Ihauterietako pertsonaien erakusketa.** Urtarrilaren 18tik 20ra arte, Iturri kultur etxean.

ERMUA

- » **Margo erakusketa. Argiñe Berrojalbizen margolanak.** Urtarrilaren 18tik 31ra arte, Lobiano kultur gunean.

DURANGO

- » **Legazpiko Arkatza kultur elkartearen margo erakusketa.** Otsailaren 19a arte, Andragunean.
- » **Uribarriko Andra Mari. 500 urteko historia.** Urtarrilaren 29a arte, Arte eta Historiaren Museon.



IKASTAROAK

ABADIÑO

- » **Sexualitate tailerra,** barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko Berdintasun Sailera jo (berdintasuna@abadiano.org).

DURANGO

- » **Patinaje ikastaroa,** zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutziaga Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)



- » **Dantza ikastaroa,** martitzen eta eguenetan. Gaueko 21:00etatik 22:00etara, Landako kiroledegian izango da. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

- » **Streching ikastaroa,** barikuetan, 20:00etatik 21:00etara, Landako kiroledegian. (Informazio gehiago: 94 603 0031 telefonoan).

- » **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.



- » **Adinekoentzako denetariako ikastaroak: Landare kontserba eta marmelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.** Izen-emoteak Durangoko adinekoen udal egoitzan.

- » **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak.



Hamabost egunean behingoz maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emateko Liburutegira gerturatu.

IPUINAK

DURANGO

- » **Matias Tarraga. Helduentzako ipuin kontalaria.** Hilaren 22an, 20:00etan liburutegian.

- » **Maite Arresegaz umeentzako ipuin kontaketa saioa.** Urtarrilaren 30ean. 12:00etan 3-5 urte bitartekoentzako. 12:30etan 6 urtetik gorakoentzako. Liburutegian.



IURRETA

- » **Haurrentzako Irakurketa Kluba.** Urtarrilaren 26an Liburutegian, arratsaldeko 17:00etan, 8-10 urte bitartekoentzako. Eta arratsaldeko 18:00etan 11-12 urtekoentzako.

JAIK

BERRIZ

San Antonio jaiak

- » **Idi-proben 54. Sariketa Nagusia.** Urtarrilaren 25a arte.

IURRETA

Bakixako jaiak

- » **Gizon-probak: Mendata-Santa Mañe.** Urtarrilaren 23an, 18:00etan.



- » **Luhartz taldeagaz erromeria.** Urtarrilaren 23an, gaueko 22:30etan.



- » **Berto saioa: Abarkas, Onintza Enbeita eta Mañukorta.** Urtarrilaren 24an, eguerdiko 13:00etan.

- » **Santa Ageda koplen entsegua**

urtarrileko agenda

Urtarrilak 23-24-31 • Iurreta Txirindulari Elkarte
10:00etan. Ibilbide ezberdinak.

Urtarrilak 23-24 • Bakixako Jai Batzordea
23an, 18:00 Gizon Probak. / 22:30 Erromeria Luhartz taldearekin
24an, 11:30 Meza. Jarraian Iurretako Mikel Deuna Dantza Taldea
13:00 Bertsolariak: Abarkas, Onintza Enbeita eta Mañukorta

Urtarrilak 26-29 • Bakixako Jai Batzordea
26an, Haurren irakurketa kluba. 17:00-17:45(8-10urte)/18:00-18:45(11-12urte)
29an, 17:30 Ikima tailerrak
17:30-18:30 Haurtxoen irakurketa kluba (3-6urte)
20:00 Helduentzako ipuin-kontalaria "Memorias de mi suburbio"
17:30 Maiztegi H.E. Dantza taldea. Ondoren ume jolasak eta txokolatada

Urtarrilak 26-28 • Mikel Deuna K.T. Goiuria K. gunea
26an eta 28an, 20:30 Sta. Ageda koplen entsaioa

IURRETAKO UDALA

egingo dute, Mikel Deuna Kultur Taldeak antolatuta. Urtarrilaren 28an, iluntzeko 20:30ean, Goiuria kulturgunean

» **Meza izango da** lurretako koruak



abestuta, eta jarraian, **Mikel Deuna Dantza Taldearen saioa.** Urtarrilaren 24an, goizeko 11:30ean.

LEHIAKETA

ABADIÑO

» **San Blaseta Argazki Txapelketa.** Gaia: San Blasak 2010. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 12ko 20:00ak. Errota eta Txanpota kultur etxeetan aurkeztu daitezke argazkiak. 1.saria: 400 euro. 2.saria: 250 euro.

BERRIZ

» **“Emakumeen Nazioarteko Eguneko II.Kartel Lehiaketa.** Gaia: sexualitatea. Lanak otsailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira Berrizko Udal Erregistroan. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean be zabalduko da lehiaketa. Kategoria horretako saria argazki kamera digital bat izango da.

ERMUA

» **Inauterietako kartel lehiaketa.** Kartelak aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 28a da. Udaletxeko Abiapuntu bulegoan batuko dira lanak. Irabazlearentzako saria: 450 euro.



LITERATURA

DURANGO

» **Javier Mañón umoregileak, bere showa aurkeztuko dau.** Urtarrilaren 28an, iluntzeko 23:30ean, Misarbe tabernan eskainiko dau ekitaldia.



MUSIKA

DURANGO

» **Ruper Ordorikaren kontzertua,** urtarrilaren 22an, gaueko 22:00etan, Plateruenean.

ERMUA

» **Blues kontzertua: Gaby Jogeix, gitarrista eta abeslaria** urtarrilaren 23an, iluntzeko 20:00etan, Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 5 euro



ZINEKLUBA

DURANGO

» **‘Toda la culpa es de mi madre’,** urtarrilaren 28an, 20:30ean, Zugaza zineman.


ERMUA

» **‘Paprika: detectives de sueños’,** Japoniako zinearen zikloa. Hilaren 28an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kultur etxean.



ZORNOTZA

» **‘Sin nombre’,** urtarrilaren 26an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Urtarrilaren 22an, 22:00etan

HAIZE GOZOAGAZ ETORRIKO DA RUPER ORDORIKA PLATERUENERA

Ertamerikan eta Karibearen "garizumako haizea" deitzen deusie otsailaren harrotzen den haize epelari. Uda eta eguraldi ona iragartzen dau haize horrek inguru haretan. Ideia hori hartuta, Ruper Ordorikak azaroan kaleratu eban *Haizea garizumakoa* bere azken lana. Hamabigarren disko horretako eta bere ibilbide luzeko kantak abestuko ditu Ordorikak, gaur, Durangoko Plateruenean. Alboan izango ditu Arkaitz Miner (gitarra eta mandolina), Lutxo Neira (baxua) eta Hasier Oleaga (bateria).

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Nine

Zuzendaria: *Rob Marshall*
barikua 22: 19:00
zapateria 23: 20:00/22:30
domeka 24: 20:00/22:30
astelehena 25: 19:00/22:00
martitzena 26: 20:00



Avatar (3D) Zuzendaria:

James Cameron
zapateria 23: 16:30
domeka 24: 16:30

ELORRIO

Arriola antzokia

Sin nombre

Zuzendaria: *Cary Joji Fukunaga*
zapateria 23: 22:30
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00



Umeendako zinema

Planet 51

domeka 24: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

No es tan facil

Zuzendaria: *Nancy Meyers*

zapateria 23: 22:30
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00



Umeendako zinema

Siempre a tu lado: Hachiko

domeka 24: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 15**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Zapateria, 16
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / De Diego / Sagastizabal / Unamunzaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
Domeka, 17
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel
(Torresolo 4 - Abadiño)
Astelehena, 18
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Martitzena, 19
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga
(Torresolo, nº 4-Abadiño)
Eguaztena, 20
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguena, 21
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta 94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

- Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanpota KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 13° BARIKUA** ☁
Ez da aldaketa handirik gertatuko. Goizean tarteka giro eguzkitsua edukiko dugu, baina arratsaldetik aurrera zera ilundu egingo da berriro eta oraingoan ez dira desagertuko.
12° ZAPATUA ☁
Giro euritsua espero da. Goizean goiz hasiko da euria egiten. Egun osoz hodeiek zera estaliko dute. Egunaren amaieran haizea aldakor ibiliko da, iparraldera egiteko joerarekin.
10° DOMEKA ☁
9° ASTELEHENA ☁
3° MARTITZENA ☁

HARATEGIAK

ABADIÑO
Milikua
Teo

BERMEO
Izarzugaza
Barturen

BERRIZ
Jon Armas Garcia

BILBAO
Iñaki
Francisco Atutxa

DIMA
Igor Zuazo

DURANGO
Rafael Agirre
Gallastegi
Pablo Areitio
Jose Luis Etxaniz
Olabe

ERANDIO
Luis Angel

GALDAKAO
Javier Sagasti

GERNIKA-LUMO
Iturbe Anaiak
Jesus Maria Martija

IGORRE
Rekalde

IURRETA
Alberdi prekozinatuak
Javi Cebada

MAÑARIA
Rafael Bizkarra

OTXANDIO
Angela Ruiz
de Samaniego

ZORNOTZA
Fernando Aldazabal

JATETXEAK

BERRIZ
Pedro Juan
Ganeko Etxe
Toki Ona
Ereña


LA ARBOLEDA
Meaztegi Golf

ZAMUDIO
Gaminiz

ZORNOTZA
Boroa
Juantxu



Askatasun etorbidea 48
48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48
Fax: +34 94 621 77 66



KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Partidu bat eta helburu bi

Durango Ilarduyako talde nagusiak Urrezko Kopako ligaxkara sailkatzeko azken kanporaketa fasea jokatu du etzi, 12:00etan, Hernanin. Hauek kanporatuz gero, Ohorezko A Mailako —goragoko maila— beste hiru taldegaz osatutako ligaxkan erabakiko litzateke irabazlea. Saria tentagarria da: Irlandako talde baten kontra jokatzeko aukera; segurutik, Irlandan bertan. Hala ere, DRTk Hernaniren kontrako lehia, Vigoren aurkako hitzordurako preparazio moduan ere baliatuko du. Ligan estu dabil-tza, eta hilaren 31n Vigo menderatuta arerio zuzena atzean uztea lortuko lukete. Beraz, partidu bakarrean helburu bi izango ditu Durango Rugby Taldeak.

Liga hasiera eskasaren ondoren, orain sasoiko dago Aratz Gallastegik zuzentzen duen taldea; denboraldiko unerik gozoenean, beharbada. Joan zen asteburuan 26-10 kanporatu zuten Eibar, Urrezko Kopako lehenengo kanporaketa fasean. Melean, defentsan, hiru-laurdenetan... denean gehiago izan ziren durangarrak.

Urtarrilaren 10ean, berriz, Bartzelona ahaltsua bisitatu zuten, eta 28-22 galdu arren, puntu bi batu zituzten, lau entsegu lortzeagatik eta 7 puntu baino gutxiagogatik galtzeagatik. Emaizta oso ona da ligako oilarretako baten kontra.

Etziko partidua orekatua izango dela dirudi. Egia da Her-

nani nahiko erraz nagusitu zaie-la ligako partidu bietan, baina orduan Durangoko taldea orain baino makalago zebilen. Ohorezko A Mailarako ligaxkara sailkatzeari lortuko balute, Ordizia, Gernika eta Bera-Beraren kontrako partidu bana jokatu beharko lukete, Urrezko Kopako irabazlea nor den erabakitzeko.

Vigoren kontrako partiduak ere badu mamia. Lehen itzulian 17-12 galdu zuten kanpoan. Partidu orekatua jokatu zuten, azkenean amore eman behar izan zuten arren. Sailkapenean ere DRTk (13 puntu) orpoz orpo du promozio postuetan dagoen Vigo (12 puntu). Beraz, Arripausuetan jokatu duen partiduak txinpartak atera ditzake. ■J.D.

24 Kluben arteko xake liga hasi dute

Larrasoloeta, Zaldi Baltza eta Abadiño xake taldeek klub arteko lehiari ekin diote. Abadiñok, goren dabilen taldeak, mailaz igotzea du helburu moduan.

25 Jon Agirrebeitiari elkarrizketa

Jon Agirrebeitia berriztarrak (Andikoa auzoa) Munduko Kopako bigarren proba korrituko du Italian, enduro motor modalitatean. Otsailaren 6an izango da.



Bigarren jardunaldian hiru puntu batu zituen Abadiño xake taldeak. Ana Dominguez

Igotzea helburu, baina behekoiei arreta kendu barik

Abadiño xake taldeak hiru puntu batu zituen joan zen asteburuan

Hasi da Kluben Arteko Xake Txapelketa. Euskadiko Lehen Mailan dabilen Abadiño xake taldeak igotzea du helburu. Aurten, baina, iaz baino talde gutxiago igoko dira: bi, guztira. Jaitsi, aldiz, iaz beste: lau. Beraz, Alain Prietok onartzen duenez, "igotzea helburu izanda, deskuiduak ekin beharko ditugu beheko postuetatik urrun mantentzeko".

Lehenengo jardunaldian ezin izan zuten Rey Ardiden kontra jokatu, elurraren ondorioz. Lehia hori otsailaren 13an jokatuko dute. Bigarren jardunaldian 3-1 menderatu dute Leioa. Bihar, Errenteriako Fomento hartuko dute etxean. Ohorezko Mailatik jaitsi berria den taldea da Fomento. Abadiño Bk lehenengo partidu biak galdu ditu Bigarren Erregionalean.

Lehen jardunaldian atzeratutako partidua otsailaren 13an jokatuko du Abadiño

Eskualdeko taldeetatik Zaldi Baltza B da jardunaldi biak irabazi dituen talde bakarra

Goren Mailan Larrasoloetak bina berdindu zuen lehenengo jardunaldian; bigarrenen, berriz, galdu egin zuen Zuri Baltzaren kontra (1,5/2,5). Larrasoloeta Bk 3,5 puntu batu ditu lehenengo bi partiduetan. Larrasoloeta Ck norgehiagoka biak galdu ditu, baina 2,5 puntu batzea lortu du; D taldeak, aldiz, oraindik ezin izan du punturik batu.

Goren Mailan, Zaldi Baltzaren eta Conteneoren arteko partidua atzeratu egin behar izan zuten. Joan zen astean, berriz, 3-1 galdu zuen Portugaleteren kontra. Elorrioko bigarren taldeak lehia biak irabazi eta bost puntu batu ditu jardunaldi bitan. Zaldi Baltza D, berriz, joan zen asteburuan hasi zen lehian, eta 4-0 galdu zuen Zuri Baltzaren etxean. ■ J.D.

Atxarte eta Berriotxoak garaipena lortu dute

Euskal Herriko Kluben Arteko Pilota Txapelketan irabazi egin dute Atxartek eta Berriotxoak. Lehenengo jardunaldian biek galdu zuten, eta bigarrenen hiru puntuak batzea lortu dute.

22 urtez azpiko binakakoan Atxartek Zeanurin irabazi zuen, Joko Alairen kontra (13-22). Bihar, 17:00etan, Ilunperen kontra ariko dira Matienan.

Binaka eta nagusien mailan, Berriotxoak 15-22 irabazi zion Paz Zigandari. Asteburuan Amurrio jasoko dute etxean.

Emakumezkoen paleta goman finalak jokatuko dituzte asteburuan. Zorritzarrez, Malla-biak ezin izan du finalera iritsi.

Azkenik, aipatzekoa da Rober Uriarte abadiñarra Adiskide klubagaz dabilela jokatzen klubaren arteko txapelketa.

Bestalde, Bizkaiko trinkete txapelketan, Oizpe A eta B taldeek irabazi egin zuten binaka Igorre eta Abadiñoako Atxarte Dren kontra. Atxarte Ck eta Atxarte Ak Arkupe eta Besagain menderatu zituzten. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto-futbol entrenatzailea



Emakumeen derbia

Joan zen larunbatean Landakoko kiroldegian lehenengo aldiz jokatu zen Kurutzia eta Kulturalako nesken arteko partidua; partidu zirragarria harmailetan zegoen jendearentzat, nahiz eta gol gitxi egon (bana berdindu zuten amaieran), bi taldeen artean lehia polita baitago (taulan berdinduta) eta jokalarien artean urduritasuna nabaria baitzen.

Kulturalan Kurutzia jokalaririk ohiak dagoz (hobe ahaztea Kulturalako zuzendaritzak eginikoa orain dela urte bi, horrek Kurutzia nesken taldearen desagerpena ekarri ebalako), eta Kurutzian, aldiz, Zornotzako Beti Arin-en ibilitako jokalariek (Beti Arin desagertzean "Kuru neska" berriro sortuz); "ezin erre gertu, ez baitzen asko behar sualdi bat sortzeko", azken urteotan arerioak izan direlako.

Nahiko partidua parekatua eskaini eben jokalariek, eta markagailua horren adierazle nagusia izan zen. Lehenengo Kulturalak jo eban, baina Kurutzia-gak lortu eban puntu garrantzitsua bereganatzea.

Orain artekoak ikusita, badirudi Durangon bi talde indartsu daudela, eta pena da proiektu berean ez egotea bi taldetako neska, argi geratu delako azken urteotan Durangaldeak nesken areto-futbol maila polita daukala, eta gorago egon litezkeela.

Momentuz bi talde hauekin gozatu beharko dogu, eta ezin itzi gure laguntza emoteari nesken partaidetza areto-futbolearen geroago eta handiagoa izan daiten.

Ezkurdik eta Extremeñoek derbia jokatuko dute Arripausuetan



Hirugarren Erregionalean Ezkurdik eta Extremeñoek durangarren arteko derbia jokatuko dute, bihar arratsaldean, Arripausuetan. Lehenengo itzulian 3-4 nagusitu zen Ezkurdik. Areto-futbolearen Durangaldeko beste derbi bat dugu Lehen Erregionalean: Abadiñoako Gaztetxien Presion Break. Berrizko taldea bigarren dago sailkapenean, Atxure Bakioirengandik sei puntura.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak


1- Amorebieta.....42	15- Lagun Onak.....25
2- Real Sociedad B...41	16- Laudio.....25
3- Beasain.....38	17- Zalla.....25
4- Kulturala.....37	18- Eibar.....21
5- Zamudio.....37	19- Retuerto.....21
6- Gernika.....36	20- Salvatierra.....9
7- Portugalete.....34	
8- Amurrio.....33	
9- Baskonia.....33	
10- Elgoibar.....31	
11- Santurtzi.....29	
12- Arenas.....28	
13- Leioa.....27	
14- Aretxabaleta.....27	

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Bidegintza.....10 (+61)
2- Seky.es.....8 (+30)
3- Padura.....8 (+45)
4- Baskonia.....7 (+22)
5- San Ignacio.....7 (-40)
6- Zornotza.....6 (+32)
7- Tabirako.....6 (+7)
8- Easo.....5 (+6)
9- Legarzia.....4 (-94)
10- Bide Bide.....3 (-89)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Bera Bera14 (+246)
2- Gernika11 (+168)
3- Ardoi11 (+258)
4- Las Gaunas . . .10 (+23)
5- Cafés Aitona . .9 (+64)
6- Deusto-Loiola .8 (+32)
7- Arabako EHU .8 (+15)
8- Elexalde8 (+2)
9- Obenasa8 (-42)
10- Tabirako7 (-25)
11- Abaroa6 (+48)
12- Atletico SN . .6 (-11)
13- Getxo5 (-119)
14- Artieda3 (-165)
15- San Ignacio . .2 (-265)
16- Irlandesas . .0 (-329)



Kulturala play-offeko postuetan dago Zallaren aurka 2-1 irabazi ondoren



Prestaketa laburra baina intentsoa egin dau berriztarrak eta lasterketa ona egin leikela ziur dago. Kepa Aginako

“Ibilbide exigentea da, baina niri gustetan jataz holako zirkuituak”

Jon Agirrebeitiak (31 urte, Berriz) Motor Enduroko Munduko Kopako bigarren lasterketan parte hartuko dau otsailaren 6an, Italian. Bere asmoen barri emon deusku.

Zelan sortu jatzun Munduko Kopako proba batean parte hartzeko aukera?

Igaz Endure Extreme modalitateko lasterketa bi korritu nituen. Gordexolan Pedro Gomez de Balboa ezagutu neban; motor lasterketei-eta buruzko webgunea dauka. Ondo ibili nintzela iruditu jakon, eta eurekin Italiara joatera gonbidatu ninduen. Estatu osotik katalan bi (Xabi Galindo eta Melchor Faja) eta neu goaz.

Zelakoa izan da preparazioa?

Igazko urte amaieran deitu eusten Gernikako Off Road taldetik, laguntzeko prest zegozela esanez. Beraz, Gabonetatik honako preparazioa daukat.

Gernika Off Roadetik deitu arte parte hartzea kolokan zeukan.

Ilusinoa baneukan, baina laguntza beharrezkoa da. Deitu eta hurrengo egunean hasi nintzen preparazioagaz. Fisikoa asko landu dot; izan be, lasterketa 06:00etan hasi eta 22:00etan amaitzen da. Ibilbide exigentea da, baina niri gustetan jataz gaxak diren zirkuituak.

Tramuka korritzen da?

Goizean lau itzuli emon behar dira, baktxa ordubetetik gorakoa. Lehenengo 30ak arratsaldeko saiorako sailkatzen dira. Arratsaldekoan, lehenengoa pasatu den tokitik denpora hartuta handik gorako atzerapenagaz pasatuz gero, lasterketatik kanpora geratzen zara.

Arratsaldekorako sailkatzeko aukerarik ikusten dozu?

Gauzak okertzen ez badira badaukat aukera, nik uste. Baina, beno, beti be argi izan behar da holako lasterketa batean gauza asko gertatu daitezkeela: erorketak, arazo mekanikoak...

☞ *Gauzak okertu ezean 30 onenen artean sartzeko aukera daukadala pentsatzen dot* ☞

☞ *Mountain-bike jaitziera motor bako motorrean ibiltzea legez da* ☞

Motorra ondo prestatu ahal izan dozu?

Motorra preparatuta badago. Motor ona izatea garrantzitsua da, baina proba horreetan motorraren gainean doana da benetan emaitzak lortzen dituen.

Noiz eta zelan sortu jatzun motorragazko afizinoa?

Betidanik gustatu izan jat. Bizikleta itzi ondoren, orain sei bat urte hasi nintzen lagunekin-eta

motorrean ibiltzen. Gero, karre-
rak korritzen hasi nintzen.

Emaitza onak lortu izan dozu.

2008an Euskadiko Txapelketa irabazi neban. Urte horixe izan zen benetan serio hartu neban. Igaz, esaterako, lasterketa bi bakarrik korritu nituen.

Eta zelan joan ziren?

Bietan be ez neban oso zorte ona eduki; motorragaz arazoak izan nituen. Nabarnizen seigarren geratu nintzen eta Gordexolan laugarren. Ez nintzen gustora geratu. Gehiago egin zeitekeela jakinda, beti geratzen da halako pena bat.

Motorra hartu aurretik, txirrindularitzan ibili zinen urte askoan.

Gazte-gaztetan hasi nintzen. Baneston ibili nintzen lehenengo, eta Portugalgo Matesika taldean ondoren, azken horretan profesional legez.

Zergatik itzi zenduen?

Alergiagaz txarto ibiltzen nintzen eta, batez be, horregaitik itzi neban, baina ez zen arrazoi bakarra izan. Taldean fundamente eskasa zegoen; ez zegoen giro onik, lasterketa gitxitara eroaten nindueen, ordainketetan be arazoak...

Errepideko txirrindularitza itzi zenduen, baina ez bizikleta.

Mountain-bikea hartu eta jaitziera egiten hasi nintzen urtebetez. Sentzazio bitxia da; motor bako motorrean zoazela dirudi. Adrenalina soltatzeko modu ona da.

Kirol arriskutsua emoten dau.

Egia esanda, bai, arriskutsua da. Baina momentu horreek bakar-
rak dira, bizi egin behar dira.

Zure izakeragaz bat dator?

Txikitari be ezin neban geldirik egon. Edo bizikletan edo beste zeozertan, baina beti mugitzen. Geldirik sekula be ez.

Errepideko txirrindularitza, mountain-bike jaitziera ala motorra. Zeinetan gusturen?

Motorrean. Bizikleta be asko gustetan jat, baina bat aukeratzekotan motorra.

☞ *Errepideko bizikleta, mountain-bikea ala motorra aukeratu behar badot, motorra* ☞

Beraz, gaztetan oker aukeratu zenduen?

Bai, antza; beharbada bai.

**Egoitz Murgoitigaitik be galde-
tu gura deusut.**

Ederto dabil. Azken aspaldian

Agenda

SASKIBALOA

LEHEN MAILA

Tabirako - Baskonia

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Tabirako - Paules

Barikuan, 20:00etan,

Jesuitetan

Anbotopeko - Salleko

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

FUTBOLA

LEHEN ERREGIONALA

Iurretako - Lekeltio

Zapatuan, 18:00etan,

Larrakozelain

Zaldia - Gazteluzarra

Zapatuan, 16:30etan,

Solobarran

BIGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

Abadiño - Iturgitxi

Zapatuan, 15:45etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Extremeño

Zapatuan, 17:30etan,

Arripausetan

Berriz B - Artibal B

Domekan, 11:30etan,

Berrizburun

Elorrio B - Sondika B

Zapatuan, 18:00etan,

Eleizalden

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrio - Amorebieta

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

ARETO FUTBOLA

OHOREZKO B MAILA

Elorrioko - Santurtzi

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa - M. Petronor

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Elorrioko B - Freunde

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroldegian

Abadiño Gaztetxe -

Presion Break

Zapatuan, 15:10etan,

Elorrioko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Kurutziaga B - Bikaina

Zapatuan, 17:30etan,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

(emakumeak)

Kurutziaga -

Atxure Bakio

Zapatuan, 16:00etan,

Landako kiroldegian

asko irabazten dabil, baina beti izan da txirrindulari ona. Oraingo lorpenekin konfiantza gehiago hartuko dau, eta hemendik aurrera sorpresa on gehiago emongo deuskuzela uste dot.

Aipatzeko besterik?

Eskerrak emon gura deusdaz nire babesleei: Decoración Horacio, Carpe Diem, Construcciones Peinso, Berrizko Udala eta Gernika Off Roadi. ■ J.D.



EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 94

Estetika Zentroak

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarrago, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Parafarmazia **Amara** Dietetika

- Drenatze linfatikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Anso Estegiz Zumardio • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 94

ZUTOIA
• ileapaindegia •

• Tratamendu kosmetikoak
• Ozonotzio
• Soinua
• Solariua berotzea
• Tratamendu argizari-beroa-berotzea

AVUENIDA, 11. sateko 1. bulego • 48100 Durango • telefono: 94 621 82 18
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18

Ana Camarero
• apaindegia •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Virginia Ansorena
• estetika •

- **38€-ko bonoa**
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- **%40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan**

San Agustinalde, 1ªA-1ªC. 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbi.: 665 716 017

Etxeko geruza kosmetikoak



Aurpegia arimaren ispilua dela dinoe, eta denporaren poderioz zein eguzkia bezalako faktoreen eraginez, azala zimurtzen joan leiteke. Horri aurre egiteko, etxean erabiltzeko moduko teknikak be badagoz.

Astean behin aplikatzea ondo etorri leiteke. Lehenik eta behin, krema edo antzeko produktu batekin ondo garbitu behar da azala.

Hainbat geruza kosmetiko egin geinkez etxean: nutritiboa, koipegabetailea, leungarria, hidratatzailea, araztailea, zimurren kontrakoa, estresaren kontrakoa edota ileari distira emotekoa.

Hidratatzailea, esaterako, azal siku eta sentsibleetarako egokia da.

Honela prestatzen da: esne-gaina (hiru koilarakada) irabiatu behar da sendotu arte. Arrautzaren gorringo bategaz nahastu eta limoi tanta

batzuk gehitu behar jakoz, krema itxura hartu arte. Aurpegian 20 minutuz ipiniko dogu, eta gero ur epelagaz kendu behar da.



IRAGARRKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde
zaharreko etxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...

SALDU

Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU

Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko
(ingeles
beste irakasg
batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
asteleheneretik ostegunera.
09:30
aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...

e-mail: anboto@anboto.org
Tel.: 94 681 65 58

Sailfish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178zm, 68-78 Kg). Tel.: 665 714 783

Autorako aulkia salgai. Romer Isolix duo plus. 2 urtekoa. Berri-berria. I taldekoa (9-18 Kg). Segurtasun uhalarekin edota isofixagaz lotzeko. 175 euro. Tel.: 646 740 643

Bibolina salgai. 1/2 -eko neurrikoa. Funda, arku, resina eta ordezeko sokak. Egoera onean. 40 eurotan. Tel.: 637 292 465

Telefono mugikorra salgai. LG markakoa. Kargadorearekin. Tel.: 689 847 603 (Nerea)

Berriz. Etxeko gela bi (altzariak) saltzen ditut. Tel.: 696 325 811

Mendi bizikletarako balaztak salgai. Formula 24k. Hidraulikoak. Estreintatu gabe. Adaptadoreak prezio barruan. 250 euro. Tel.: 675 008 804 (Harkaitz)

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Arko izozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. la-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

EROSI

lurreta. Landa bat erosi edo errentan hartzeko prest nago. Tel.: 626 156 817

Kotxerako umeen segurtasunerako aulkia (1,2,3 taldekoa) eta jaioberrientzako moisesa erosi nitzuzke. Tel.: 650 573 607

Bikiak paseatzeko aukitoxa erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Gizon bat emakume bila dabil, 42 urte ditut. E-mail: virgicre@gmail.com

Biodantza ikastaroa eskaintzen dut barikuetan Elorrioko Lurdes ikastetxean, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko: Tel.: 626 661 292 (Mentxu)

Txakur portaeran aditua. Txakurrari laguntzeko bide onena. Turid Rugasen eskolakoa eta PDTE Europako elkarteko kidea. Tel.: 649 402 296 edo 649 402 290

Durango. Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Interesatuak deitu hona: Tel.: 605 711 331 edo 630 839 325

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurlaritzan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak salgai.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztua)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztua eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldea jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
- Abadiño-Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berrizatzeko.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berrikuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trastelekua.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+ BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+ BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+ BEZ
- Tabira: Luxuko etxebizitza berrien promozioa. Logela bakarra ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 100 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Ambrosio Meabe: 108 m2. 3 logela. 2 kotxerentzako garaje itxia. Ganbara.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- San Frantzisko: 75 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 balkoi.
- Antso Eztegi: 97 m2. 3 logela. Ganbara.
- Astepe: 85 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Andra Mari: Atikoa. 2 logela. 30 m2-ko terraza.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oñiturri - Astatasun Etorbidea: Erdi berria. 2 logela. Ganbara.
- Landako etorbidea: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.

ETXETXO
C. INMOBILIARIA
Inb. Ag. 1.100.000 P. J. de Zumarraga Kalea
Tel.: 94 681 40 48 • DURANGO • etxetxo@hotmail.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Pinondo: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du.
- J. Olazaran: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Tabira: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Eguzkitsua. Oso polita. Garaje itxia.
- Frantzisko Ibarra: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 340.000 €.
- Durango: 2 logela. 156.300 €.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreintzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Tronperri: 115 m2. Hidromasaje-bainuontzia. Gustatuko zaizu.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Ezkurdi: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1. go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia.

IURRETA

- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.

ABADIÑO

- A. Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi berria.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.
- Matiena: 3 logela. 180.000 €.

ZALDIBAR / BERRIZ

- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea.
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.

BERRIZ

- Iturritxu: 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua.

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK,...

BISITATU GAITZAZU BULEGO BERRIAN, SAIBIGAIN 1, (Fray Juan de Zumarraga kaletik sarrera).

Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Eak. DURANGO
TE: 94 681 35 62. email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 € hilero.
- Askatasun Etorb.: Eraiki berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreintzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- San Fausto: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, eskegitokia eta trastelekua.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLExA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisol: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Prezio interesgarria.

JAKA


- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Estreintzeko.

TXALETAK SALGAI ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreintzeko. Informazio pertsonalizatua.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Gizon izena	Bizkaiko ibaia	Kaier
	Oinazeak	Galdetzaile bat	
	Mutur		
	Ez ohikoak		
Etzatera behartu	*Eskualdeko dorretxea		
Ate inguru	Apika, beharbada		
		Neodimioaren ikurra	
		Ikatz egilea	
Lapurdiko herria			
Eramankor			
Oparoa			Nitrogenoa
Gertatu			Oilo ar
		Animalien presondegi	
		Multzo	
Röntgen	Nahikoa!		Jardun
Kankailua	Garra		
Zaren hori	Argi izpi		
Miau egile	Uranoaren ikurra		

SUDOKU >

1

9	2		6	4	
5			4	1	2
	6		7	8	
3		6		8	
2	1	9		7	4
		8	1	3	2
6				5	
	7		2	3	4
4	2				7


2


		4	6	2	
6	8				
				3	7
3	9				
			2	6	
4		1	7	2	
			1		5
7	3		4		
			3	7	1


HOROSKOPOA >


Aries

 marxoak 21 - apirilak 20
 Ez izan hain burugogorra! Besteen eritziak be kontutan hartu, eskertuko deusue.

Taurus

 apirilak 21 - maiatzak 20
 Denpora luzean ikusi barik zeunkaz lagunekin ederto pasatu dozu! Oraingoan ez galdu kontaktua!


Gemini

 maiatzak 21 - ekainak 20
 Behingoagaitik zugan pentsatu besteengan baino lehenago! Kirol apur bat egiteko sasoi aproposa, animatu!


Cancer

 ekainak 21 - uztailak 20
 Urte barri batean gagoz, eta zu oraindino lehengo pentsamendu zaharrek? Bada garaia aldatzeko!

Leo

 uztailak 21 - abuztuak 23
 Ez bilatu gehiago, zeure alboan daukazu-eta zuretzako bikoteak aproposa. Zabaldu begiak!

Virgo


 abuztuak 24 - irailak 23
 Urduri samar zabilz aspaldi honetan. Hartu arnasa! Asteburuan mendi ibilalditxo bat egiteak on egingo deus!


Libra

 irailak 24 - urriak 23
 Ez begiratu bakarrik zure betaurrekoetatik, gauzak ez dira zuri ala beltz. Grisak be badagoz!


Scorpius

 urriak 24 - azaroak 23
 Maite dituzun pertsonekin istiluak izatea ez da arraroa. Ez kontutan hartu, badakizu-eta zelakoak diren!

Sagittarius

 azaroak 24 - abenduak 23
 Noizko asteburu erromantiko hori? Errutinatik irteak on egiten deus edonori! Asmatuko dozu, seguru!

Capricornus

 abenduak 24 - urtarrilak 20
 Urte bat gehiago egin eta zimurrei begira? Ez galdu denporarik horretan. Urte osoa daukazu aurretik zure ametsak betetzeko!

Aquarius

 urtarrilak 21 - otsailak 18
 Bikotekideak ez deusula kasurik egiten? Gaur bertan berba egin beragaz. Gauzak konpondu gura badituzu behintzat...

Piscis

 otsailak 19 - martxoak 20
 Lanean ez zagoz momentu onenean. Baina esperientzia guztietatik ikasten da zeozer!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
 Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Urtarrilaren 27an **Josebare**n urtebetetze eguna izango da. Zorionak etxeko pelotari eta futbolariari. Muxu handi-handi bat.



Urtarrilaren 29an 11 urte egin dituzu, ze handia **Oihane!** Zorionak eta mosu bat Maider eta Kororen partez.



Miren! 12 urte bete dozuzen honetan, hartu etxekoon mezua: mosu handi bat eta segi zintzo eta alai.



Zorionak **Ibon Moreno Unzueta**, etxeko mutil handiarendako urtarrilaren 20an lau urte egin dituzulako. Ondo pasa eguna eta jarraitu hain alai izaten.



Maiane Iria Korpionek urtarrilaren 25ean bi urtetxo egingo ditu. Zorionak sorgin txiki. Mosu potolo eta goxo bat Matxalen, Marijo eta Santiren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

SOLUZIOAK

I	R	A	L	U	A	M
R	V	N	I	U	Z	
A	L	A	K	S	V	K
	I	K	A	S	R	
O	O	Z	O	Z	V	J
N		A	O	A	N	
R	O	K	N	A	S	J
E	I	A	R	U	Z	
D	N		A	R	I	A
A	R	R	A		E	
O	L	O	P			
K	A	N	A	M		
	G		Z			

1

4	5	2	6	7	8	9
8	7	3	4	6	7	8
6	3	5	2	9	1	8
7	4	1	3	5	2	6
2	2	8	6	9	1	2
6	1	8	7	8	1	8
3	4	5	2	7	8	1
4	4	7	8	2	3	5
8	7	3	4	9	1	6
6	2	3	5	6	1	4

2

9	6	5	2	3	8	7
1	7	3	6	4	9	8
4	8	2	7	1	6	3
8	4	6	1	9	7	5
7	5	1	3	8	2	4
2	3	5	6	4	8	1
5	9	4	8	2	1	3
6	2	8	7	3	7	6
6	2	8	7	3	7	6
3	1	7	4	5	6	2



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean menu berezia 16 euro, 18e/ardoa, 20e/kriantza. Afariak egunero astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko menua 11€



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostiralera. Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02



Jasone Agirre
Kazetaria

Veneratio

"Veneratio sileo vera", ohorea egian dagoela irakurri dut hor nonbait.

Kazetarion lanak ohorezko izan behar lukeela uste dut baina egia, edo egia osoa dugu oztopo. Ez da zertangai istilutsuetara jo behar, adostasunik handiena egon daitekeen gaietan ere berdin. Haitiko hondamendian, esaterako.

Egia da naturak berak apurto duela barru-barrutik Haiti baina egia da lurrikarak barik miseria gorriak hil dituela azkenean.

Egia da Estatu Batuak, Frantzia, Europa osoa bizkor laguntzeko prest agertu direla, milioika euro edo dolar eskuetan, baina egia osoa da askoz ere gehiago dela mendeetan Haitikoei ostu dieten gutia.

Egia da Eliza Katolikoa otoitzean ari dela haitiarren alde, baina egia osoa esateko, ardura handiagoa izan du azken urteotan Kuba edo Venezuela bezalako herrialdeetan musturra sartzen.

Egia da denoi barruak astindu dizkigula Haitiko triskantzak, eta sekulako elkartasun uholdea eragin duela, baina baita pare bat astean edo, albistegiako interesa jaitsi ahala, ahaztuta edukiko dugula ere. Ordurako, gure begi errukitsuak beste hondamendiren batera begira egongo dira.

Ez "veneratio", ezta "vera"-rik ere. Latinez ez dakit zelan esango ote den baina nik neuk hemen ikusten dudana gezurra eta lotsa baino ez da.

"Kazetarion lanak ohorezko izan beharko luke, baina egia edo egia osoa dugu oztopo"

"Bilbo, Donostia eta Gasteizko markesinetan gagoz!"

Esnea produzitzen egiten dau beharra Rubenek. Familia osoak hartu dau parte Kaikuren kanpaina

Telebistan ikusiko zenduezen, eta irratan entzun. Kaiku esne markaren azken kanpaina parte hartu dabe Ruben, Eneritz eta Eirek. Ruben jaio aurretik hasi zen bere aita esne ekoizpenean profesional moduan. Gaur egun, lan horretan jarraitzen dau Rubenek. Familia osoagaz egon gara iragarkiari eta esne ekoizpenari buruz berba egiteko.

Azken asteotan famatu egin zarie. Jente asko gerturatu da galdezka. Gehienek ea zenbat kobratu dogun galdetzen dabe. Ez dogu erantzuten. Esnea apur bat gehiago pagatuko balebe... gu pozik. Denetik esaten deuskue. Izeko batek gu ikusteaz aspertuta dagoela dino!

Zelan egin eutsuen iragarkia egitek proposamena?

Lehenengo, abuztuan deitu euskuen esanez Kaikuko gerenteak gure ize-

na proposatu ebala kanpaina baterako. Argazki batzuk ateratu genduzen, eta abendu hasieran tetrabriketan agertu ginen. Handik gutxira, berriro deitu eben espota egingo ete genduen galdezka.

Eta birritan pentsatu barik, animatu!

Hasieran argazki batzuk bakarrik izango zirela uste genduen, baina kontua gero konplikatzen joan da, eta konturatu orduko... itzelezko kanpaina da! Bilbo, Gasteiz eta Donostiko markesinetan gagoz!

Gustatu jatzue zelan geratu den?

Norberak bere burua beti ikusten entzun genduenen be esan genduen: "Hau ni naz?". Telebistan be,

jenteak dino ondo, natural

agertzen garela, baina norberak bere burua estu ikusten dau. Onik ez dozu ezer ikusten, dena akatsak ikusten dozuz.

Toma faltsu asko egin zenduen?

Hiru ordutan dena eginda geunkan, eta, esan deuskuenez, hori nahiko arin egitea da. Kanpaina beste batzuekin denbora gehiago egin eben, urduri jartzen zirelako.

Zelan bizi izan dau hau dena Eirek?

Hau kanpalarrosa da, bere saltsan egon da! Tetrabriketan argazki agertu da... Urtebetera orduko jada famatu! Telebistan ikusten gaituenean, harritu egiten da.

Noiztik zabilzie esne produzinoan?

Ruben: Ni betidanik.

Gure aita ni jaio baino arinago hasi zen honetan profesionalki, orain dela 36 edo 37 urte.

Kalean be saltzen dozue?

Aspaldi bai, baina orain ez. Orain batzuetan marokoarrak eta ekua-dortarrak etortzen dira esne eske. Marokoarrek mantekilla estiloko jaki bat egiten dabe esne horregaz, eta pilo bat etortzen dira. Neguan ez dira ia etortzen, antza hotzagaz kostatu egiten delako jaki hori egitea. Udaberri-udabueltan etorri eta etorri egiten dira; egun batean 20 pertsona igual. Hemen ingurukoak izaten dira, baina Arrasatetik eta Sorluzetik be etorri izan jakuz. Euren artean segituan zabaltzen dira halako kontuak.

Zelan ikusten dozue esne ekoizleen egoera?

Orain bertan gehienok galerak daukaguz. Denekinbertsino asko eginda daukaguzenez, ezin dogu beste barik "txiringitoa itzi" eta beste zeozer egiten hasi. Ahal dozun neurriraino eutsi egiten deusazu. Baina orain bertan deskapitalizatzen gabilz.

Etorkizuna, beraz...

Beltz ikusten dogu. Gainera, gero eta gazte gitxiago dago esnea ekoizten. Lehen herrian hogeita piku baginen, orain bi baino ez gara, eta bestea laster jubilatuko egingo da...

Ruben Markina, Eneritz Aranburu eta Eire •

Mallabiko Mallegoi baserrian bizi dira

50 bat esne-behi daukiez



JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK



Salmenta eta konponketa



HONDA
STIHL
SAME
BCS
CARON
VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03